ERABAKIAK JAUZIAK

GEROA GORRIRA EKARRI

2004 • IRUÑEA

6. biltzar nagusia

Ponentzia

Politiko sindikala

LAB

Zbkia
TXT 20176
ZABALTZEN DOKUMENTAZIO ZENTROA

Ponentzia
politiko sindikala

Ponencia
político sindical

Texte d'orientation
politico syndical

Ponentzia
politiko sindikala

Aurkibidea

1. Nazioarteko egoera 7
1.1. Kapitalaren hegemonia mundu mailan 7
1.2. Kapitalaren Europa 9
1.3. LAB nazioarteko egoera honetan 10
1.4. Frantses eta Espainiar estatuak 10

2. LAB eta Euskal Herriko prozesu politikoa 15
2.1. Abagune politikoaren giltzarriak 15
2.2. Nazio eta burujabetza estrategiaren alde.
Aldaketa politiko eta soziala, gatazkaren konponbide demokratikoan oinarriturik 18
2.3. Burujabetza prozesua esparru soziolaboralean 22
2.4. Euskal esparru sozio-ekonomikoa 25

3. Langileria eta sindikalismoa Euskal Herrian 31
3.1. Euskal langileriaren egoera 31
3.2. Sindikalismoaren bilakaera Euskal Herrian 34

4. Gure ekintza sindikalaren ikuspegi kritikoa 37
4.1. Ibilbide laburra 37
4.2. Ekintza sindikalaren ahulduraren ezaugarriak 37
4.3. Zergatiak 38
4.4. Ondorioak 39

5. Gure eredu sindikala bultzatzen 41
5.1. Bi eredu, erreferentzia bakarra LABentzat 41
5.2. Langile klasearen berrosaketa, gure ekintza sindikal ereduaren oinarria 41
5.3. Konfrontazio sindikalismoa -kapitalari boterea borrokatzen diona-
aldaketa sozialerako eragilea 42
5.4. Benetako kontra-botereko ekintza sindikala aldaketa politiko eta sozialerako 45
5.5. Barruko lan mekanismoak. Borroka sindikaleko medotoak 54
5.6. Ekintza sindikalerako batasuna Euskal Herrian 56

1. eranskina 57

2. eranskina 59

1. Nazioarteko egoera

1.1. Kapitalaren hegemonia mundu mailan

(1) Nazioez haragoko kapitalak mundu mailan politika neoliberalak ezartzen segitzen du, Ameriketako Estatu Batuen babes politiko-militarrarekin eta Europar Batasunaren laguntzarekin. Nazioarteko ordena neoliberalak munduko herrien garapen sozial eta ekonomikoa eragozten du, herriei beren etorkizunaz erabakitzeko ahalmena ukatu eta kentzen die, eta planetako biztanleen borondate eta interesetatik gero eta urrunago dauden erabaki guneak sortzen ditu. Globalizazio neoliberala XXI. mendeko faxismo politiko eta ekonomikoa da.

(2) Makineria ekonomiko neoliberalak, pilaketa eta kontzentrazio kapitalistako bere estrategia etengabean, herriak menperatu eta lehengaiak esku betez lapurtzen, arpilatzen jarraitzeko premia dauka. Estrategia horren ageriko adibide ditugu herrialde arabiarrenganako jazarpen etengabea eta Irak eta Afganistanen okupazioak, petrolio erreserbez jabetzeko, eta erregimen sionistari laguntzea, bere eraginpeko eremuan potentzia erasotzailea izan dadin.

(3) Eraso militarra, energia baliabideen lapurreta, eta planetako baliabide naturalak saleroskeeta gai bihurtzeko kontrola dira kapital multinazionalak AEBen eta EBko bere laguntzaileen eskutik ezarritako nazioarteko ordena berriaren nortasunaren ezaugarriak.

(4) II. Mundu Gerratearen ostean nazioarteko harremanak araupetu nahi zituzten nazioarteko erakundeak, eta bereziki Nazioarteko Moneta Fondoa eta Munduko Bankua, estrategia neoliberalaren zerbitzura dauden bitarteko hutsak dira. NBE, AEBen kontrol ekonomiko eta militarraren mende, ez da egungo mutur bakarra gainditzeko gai eta planetako herrien garapenerako eta auzien konponbide demokratikorako baliabide modura indargabetuta geratu da.

(5) Nazioez haragoko korporazioen interesak ordena ultraliberal berri honetan nazioarteko erakunde ordezkarietatik kanpo hartzen diren erabakien zaintzapean daude, G7 edo G8ren kasuan bezala, itzalean dauden benetako gobernuak baitira. Munduko Merkataritza Erakundeak, Cancuneko azkeneko biltzarra erreferentziatzat hartuta, nazioarteko merkataritza harremanak arautu eta desarautzeaz arduratzen da, pertsonen beharrizanak, ikerketa biologikoa, nekazaritza, kultura eta lurrerako eta energia iturrietarako eskubideak salgai bihurtzeko helburuaz. Inbertsioen alderdi anitzeko erabakien mehatxua inoiz baino presenteago dago, eta mundua nazioez haragoko enpresen interesen arabera dena erosi eta saltzen deneko merkatu erraldoi bihurtzen saiatzen diren erabaki partzialak hartzen dira.

(6) Pertsonen oinarrizko eskubideak hala nola, osasun, hezkuntza, kultura, energia, elikadura, eta abarreko eskubideak ukatzearen ondorioz pertsonen beharrizanak merkatu ikuspegitik ikusten dira, pribatizatzea etortzen da eta zerbitzu sozial publikoak, baliabide naturalak, ikerketa genetikoa, medikuntza, lurraldearen antolamendua eta abarrak nazioarteko kapitalaren interesen mende jartzen dira, eta estatuei beren garapen eredu propioa araupetzeko ahalmena kentzen zaie.

(7) Komunikabideen kontrola, gehienak kapital multinazionalarenak izanik, korporazio ultranazionalek ezarritako ideologia ultraliberala hedatzen laguntzen ari da, eta horren ondoreak jendarteko arlo guztietan nabaritzen dira, norberekeria, elkartasunik eza, arrazakeria, genero, jatorri, erlijioen ondoriozko bazterkeria, edo kontsumismoa bezalako balioak zabalduz.

(8) Pasa den mendean estatuek harreman sozialak arautzen bazituzten, gaur egun estrategia neoliberalaren ondorioak ez dira horretara murrizten. Kapital multinazionalarentzat estatuetako legedi ekonomiko edo soziolaboralak kapitala metatu ahal izateko oztopoa baino ez dira.

(9) Oinarrizko zerbitzuak eta prestazioak arian-arian salgai bihurtu eta ondorioz pribatizatzeak, herrien baliabide naturalen agortzeak aurkitzen dira migrazio mugimenduen jatorrian, miseria eta bazterkeriatik irteteko milaka eta milaka pertsona beren sorterrietatik ihesi joatera behartuz. Baina mundializazio neoliberalak kapitalaren eta salgaien globalizazioa besterik ez du ikusten, pertsonen eskubideen globalizazioa ez da bere pentsamenduetan sartzen. Jarduera izugarri horren ondoreak nabariak dira, gaur bai eta bihar ere bai, Europako mugen barruko lurretan.

(10) Esplotazio kapitalistak aberastasuna eta zerbitzu sozialak eskueran izateko bidea ixten dio askori, lan harremanak kolokan jartzen dira, lantokietan bizia eta osasuna galarazten ditu, etorkinen gehiegizko esplotazioa eragiten du eta, era berean, lana sexuaren arabera banatzea indartzen du, eta emakumeek eta gizonek lan merkatuan, pertsona eta familien erantzukizunak uztartzeko lanetan eta errentaren banaketan berdintasunez parte hartu ahal izan dezaten eragozten du.

(11) Azkeneko lau urteotan sail sindikalok eta mugimendu sozialak globalizazio neoliberalari erantzun egin diogu. Herrien burujabetza alternatiba modura bultzatzeak aurrera egitea lortu du nekazari, sindikatu, indigenen mugimenduetatik eta herri desberdinen erresistentzia borroketatik. Beste mundu baten aldeko mugimendua sendotu egin da, eta mobilizatzeko ahalmen handiaz eta erreferentzialtasunaz jabetu da; bere bilakaeraren gakoa aurkako proposamenak egiteko duen gaitasunean eta koordinaketarako mekanismo egonkorren ezarpenean dago.

(12) "Bestelako mundua posible da" lelopean burutzen ari den borroka globala burujabetza politikoaren eta ekonomikoaren aldeko tokian tokiko borrokekin lotu behar da, globalizazioaren aurkako borrokan indarrak pilatzen laguntzeko.

(13) Nazioarteko mugimendu sindikala oso sakabanatuta dago eta, sarritan, estatu desberdinetan eta nazioartean, globalizazio neoliberala bultzatzen duten erakundeen eta interesen makineriaren barruan dago. Salbuespen garrantzitsuak egon arren, neoliberalismoak sindikatu asko kutsatu ditu eta euren interbentzio sozial eta ekonomikoa idelogiaz husturik dago. Erakunde hauek, beraz, neoliberalismoaren ondorioak leundu besterik ez dute egiten eta aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko guztiz neutralizaturik gelditu dira.

1.2. Kapitalaren Europa

(14) Europar eraikuntzaren eredua estrategia neoliberaletan txertatuta dago gai ekonomiko eta sozialei dagokienez. Azkeneko urteotan, Europa nazioen haragoko korporazio handiek eta finantzetako kapitalak jartzen zuten martxan eraikiz joan da, zerbitzuen liberalizazio politikak hartuz joan dira eta zerbitzu publiko eta prestazio sozialei eraso egin zaie, jendea lanetik botatzea merkatzeko eta lan prekarietatea eta bazterkeria soziala areagotzeko lan erreformak egin dira. Azken batean, europar batasun birtuala egin da, herrialde bakoitzeko errealitate ekonomiko eta soziala alboratuta, eta horrek kapitalaren espekulazio mugimenduei eta baliabide publikoen pribatizatzeari mesede egin eta moneta politika gobernuaren ekintzaren erdigunean kokatu du.

(15) XIX. mendeko estatuak ez dira, inoiz, ez lehen ez eta orain ere, bitarteko egokiak izan Europa demokratiko, solidario eta ikuspegi soziletik justua eraikitzeko; ez eta bertoko nazio anitzekin eta herri diferenteen identitateekin begirunea erakutsiko duen Europa eraikitzeko. Estatu espainiarraren eta frantsesaren kasuan bezala, beren mugen barruko herriak zapaldurik eraiki diren estatuak izan dira, hau da, katalanak, galegoak, bretoiak, korsuak zein euskaldunak zapaldurik.

(16) Europa eraikitzeko prozesua ezin da berriro ere estatuen estrategiak bultzatzeko plataforma bihurtu. Era beran, prozesu honi ekin orduko, Europako herriek burujabe eta elkarlanez parte hartzeko eskubidea badaukatela onartu beharra dago. estatuen zeregina Europaren eraikuntzari dagokionez, kapitala nazioartera hedatzeko zeuden oztopoak deuseztera mugatu da, eskubide sozialak murriztu eta baztertu bitartean.

(17) Europa eraikitzeko prozesu hau eskubide politiko eta sozialen onarpenean oinarritu behar da, eta galdera askori erantzun positiboa eman beharko die, hala nola, ea herrien autodeterminazioa berezko eskubide modura aitortuko den, ea osasunerako, bizitza duinerako baldintzetarako, kalitatezko lanerako, zerbitzu eta babes sozialerako eskubideak oinarrizko eskubidetzat hartuko diren; erakundeen diseinuan jendarteak politika ekonomiko, sozial, kultural eta hezkuntzako funtsezko erabakietan parte hartu ahal izateak tokirik izango duen, ea herrien eta herritarren Europa eraikitzerik posible izango den, eta halako galderei, hain zuzen.

(18) Europako Ekialdeko herrialdeak Batasunera sartzea eta Europako Konstituzioaren definizioa dira Europar Batasunaren barruko eredu politikoaren bilakaerako erreferenteak. Europako Konstituzioaren oraingo proiektuak herri eta eskualde askori ordezkaritza eta eskubide politikoak erabiltzea ukatzen jarraitzen du, eta komunitate politiko eta ekonomiko horiek Europar Batasunean beren nortasun propioaz egon eta parte hartu ahal izatea eskatzen dute, finkatutako Estatuen bidez egon barik.

(19) 2004ko ekaineko hauteskunde eta erreferendum konstituzionala test garrantzitsua izango dira eta, aldi berean, Europaren eraikuntza eredu horri erantzuteko aukera ere bai. Une erabakigarria da herrien Europaren aldeko apustua egiteko, langileen Europaren aldekoa. Estatuei gure indarra eta erabakitasuna sentiarazi behar diegu, eta justizia sozialean, lankidetzan, elkartasunean eta batasuna osatzen duten herrien burujabetzaren errespetuan oinarritutako Europa behin betiko lortu.

(20) Europako Sindikatuen Konfederazioak ez du sindikalismoaren indarra eta eledun izaera bideratzen eta, ondorioz, Europako eredu politiko eta soziala baldintzatzen asmatzen. Unean uneko erantzunak, batzuetan globalizazioaren aurkako mugimenduaren atoian datozenak, "biziraupenerako" ekimen bihurtzen dira, Europako eraikuntzaren ereduari buruz helburu zehatzak dituen estrategiaren atalak izan beharrean.

1.3. LAB nazioarteko egoera honetan

(21) LAB eragile aktiboa izango da oraingo globalizazio neoliberalaren ereduaren aurkako borrokan, eta herrien burujabetzaren defentsatik nazioarteko harremanen gaurko ereduaren benetako alternatiba artikulatzeko behar diren ekimen guztiak abiarazten lagunduko du.

(22) Espainiar eta frantses estatuen mende dagoen herriaren zati izanik, LABek gure herriaren nazio egoeraren berri emango du, burujabetzaren alde borrokatzen ari den herriaren berri, eta gure jarduera esparruan nazioarteko elkartasunean eta lankidetzan oinarritutako nazioarteko dinamikak bultzatuko ditugu.

(23) LABek, indarrak batuz, MB, NMF eta MME bezalako nazioarteko erakundeen politiken aurkako borroketan lagunduko du, bazterkeria, halabeharrezko migrazio mugimenduak, naturako baliabideen arpilatzea eta hondaketa, pertsonen eskubideak salgai bihurtzea, mendetasuna eta lan baldintzak gero eta prekarioagoak izatea sustatzen baitute.

(24) Jarrera honetatik, gure ustez Munduko Sindikatuen Federazioak sindikalismoaz, herrien eskubideez eta nazioarteko testuinguru politiko eta ekonomikoaz gure presentzia eta ekarpenetarako tesi eta planteamendu egokiak dauzka. LABek globalizazioaren aurkako foro guztietan lan egiten eta Euskal Herritik globalizazio neoliberalaren aurkako sindikatu eta herri kidetasun horrentzako ekarpena dinamizatzen jarraituko du. Horren haritik, Euskal Herriko Gizarte Foroa sustatu beharreko markoa da, gure nazioak bere nortasuna eta izaera izan ditzan, eta globalizazioaren aurkako mugimenduan ekarpenik egiteko gai izan dadin.

(25) LABek 2002ko urrian antolatu zuen Nazioarteko Konferentzia Sindikala herrien burujabetzaren aldeko sindikatuen topaketarako markoa eratzen hasteko aukera izan zen. Erakunde sindikalek batera sinatutako adierazpena abiapuntua da nazioarteko gure ekintza sindikalarentzat.

(26) Konferentzia horren ondorioz estaturik gabeko nazioen lobby sindikala eratzea (presio taldea), indar berriak behar dituen LABen helburua da. Europar proiektuaren garapena, zabalik dagoen eraketa prozesuan gauzatua, gure lehentasunetako bat izango da Europar Batasunean Estaturik gabeko nazioen eta demokrazia politiko eta sozialeko eredu baten onarpena defendatzeko jardueran.

1.4. Frantses eta espainiar estatuak

1.4.1. Frantses estatua:

(27) Frantses estatuak Alemaniarekin lankidetza faktiko ardatza mantentzen du Europar eraikuntzaren ereduan. Irakeko gerrak eta Gobernu espainiarrak Amerikako Estatu Batuen administrazioaren politika ekonomiko eta nazioartekoaren aurrean izan duen jarrerak haustura ireki du Euskal Herria mendean daukaten bi administrazioen arteko harremanetan. Hori bai, Frantses estatuak, mugimendu abertzalearen kontrako estrategia propioa burutu arren, Espainiar estatuarekin batera ere jarduten du errepresioan.

(28) Korsikarekin abiarazitako deszentralizatze prozesuak eztabaida politiko piztu du; honek frantses administraziopeko herrien aldarrikapenak bultzatu egiten ditu.

(29) Euskal nazioaren errealitatea lausotzera begira, Estatu frantsesak Ipar Euskal Herria eskualde zabalago baten esparruan (Landen Hegoaldea) kokatu nahiko du, baina aukera horrek ez dauka politika, ekonomia eta kultura ikuspegitik inolako oinarririk.

(30) Eskualde banaketa berri hau, frankismoko batasun ereduaren ostean etorri zen Autonomien Estatuaren antzera, honako helburuak ditu: eskualde kontzeptua naturaltasunez sartzea ekonomia garapeneko muturrei, barruko nazio beharrizanen berariazko eskariei "neozentralismo" egokituarekin erantzutea, eta herri edo nazio kontzeptuaz hitz egitea saihestea, "collectivité territoriale corse" bezalako izenak ezarriz.

(31) Pariseko gobernuak estatuaren egitura globalizazio ekonomikoaren koordenadetara moldatu nahi du. Estatuaren administrazio makineria arindu beharrean daude, industria eta finantza boterearen muinek erabakitako proiektu ekonomikoen arabera eragingarri bilakatzeko. Euskal Herritik eta estaturik gabeko gainerako nazioetatik bide horiek jorratu behar ditugu Estatu jakobinoari ematen diogun erantzuna indartzeko eta gure nazio errealitatearen aitorpenerako prozesua finkatzeko.

(32) Raffarinen Gobernuak arbitratutako atzeranzko neurriek Ipar Euskal Herrian eta Frantses estatuan mugimendu sindikal eta sozialaren erantzun gogorra sorrarazi dute. Ildo horretatik, mugimendu abertzalea eta, bereziki, LAB erreferente soziala izan behar gara eta, era berean, interbentzio ekonomiko eta sozialerako bitartekoen premia badela mahaigaineratu behar dugu, Ipar Euskal Herrian enplegua eta garapen ekonomikoa bermatua izan dadin. ELBk nekazaritza alorrerako planteatutako eredua (Nekazal Ganbara) esparru sozioekonomiko osorako garatu behar da.

1.4.2. Espainiar estatua

(33) Euskal Herriaren borrokak estatu ereduan eragiten duen krisiak, eta Katalunia edo Galizia bezalako beste nazio errealitate batzuentzat ere autonomia eskema higatuz joateak espainiarren ofentsiba nazionalistaren artikulazioan eragina izan du, eta "abertzaletasun konstituzionalaren" izenpean bere administraziopean dituen herrien zilegizko errebindikazioak ito nahian dabil.

(34) Autonomien estatuaren krisia, trantsizio ereduaren krisia, alegia, erreakzio neofrankista bat eta "estado de derecho" deritzotenaren inboluzioa eragiten ari da, konstituzioaren aurreko garaietako koordenadetara itzularazten diguna. Ez da kasualitatea, frankismoarekin apurtu ez izanak zera ekarri digu 25 urte beranduago, faxismoaren seme-alabak izatea gaur egun estatua eta oinarrizko erakundeak zuzentzen dutenak.

(35) PP, komunikabideak eta botere faktiko ekonomikoak kontrolaturik, pentsamendu bakarra ezartzen ari da. Hau espainiar jendartean nazionalismo espainiarraren ideia baztertzaile zaharrak hedatuz doa, eta PSOEk berak hori egiten laga eta, askotan, lagundu egiten dio. Ildo horretan, Euskal Herriaren eta Espainiar estatuaren arteko gatazka PPren ekintza politiko eta komunikabideetako ardatz nagusi modura kokatu da.

(36) Nazioarteko egoerak eta hazkunde ekonomikoko zikloan egoteagatik, inboluzio ideologiko eta faxismorako prozesu hau ez du jendeak kuestionatzen. Aznarrek sustatutako "degenerazio demokratikoko" neurri guztiak eta legegintza eta epaitegietako botereak nahierara erabiltzen dituen arren, espainiar jendarteak hori guztia barneratu du gainera, honen aurrean ideologiaz hustutako eta defentsiban dagoen ezker politiko eta sindikala baino ez dugu aurkitzen.

(37) Espainiar estatua Europa eraikitzeko prozesura, mehatxatzen duen barruko krisi sakona ebazteko gai den proiektu monolitiko modura sartzen saiatzen ari da. Estatua osatzen duen herrien borondatea eta, bereziki, Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko borroka kinka larrian jartzen ari dira ekonomia, enpresa, sindikatu eta funtzionarioen hainbat interes, horiek nahi duten bakarra Europako testuinguruan betiko batuta irautea eta herri aurrekontuen kudeaketa interesatuaz gozatzen segitzea. Interes multzo hori estatuaren egituretan txertatu dira, eta eroso bizi dira bi alderditako estatuaren oraingo ereduan eta, hartara, bai PP bai PSOEkoen apustu estrategikoa bat da: beren bizimodu horri kosta ahala kosta eustea, estatuaren barruan dauden nazio errealitateen aldetik datorren inolako borroka jarrera eragotziz, nazio horien nortasuna ukatuz, berena eraikitzeko era bakarra bailitzan, eta eskura daukaten bitarteko guztiak erabiltzea, gobernutik, legegintza eta epaitegietatik eta komunikabideetatik pitzadurarik gabeko estrategia defendatzeko.

(38) PSOE estrategia orokor horretan parte hartzen ari da, inolako estatu ereduko alternatibarik eta proposamen sozialik gabe. PPrengandik bereizteko estrategia logiko edo ñabarduretatik harantzago, PSOEk frankismoaren osteko eskuinaren antzeko politikari eusten dio, estatuko gaietan (estatu eredua, NATO, Botere Judizialaren, Konstituzio Epaitegiaren, terrorismoaren aurkako politikaren, Alderdien Legearen gaineko akordioetan....). Gogora dezagun PSOEk garatu zuela GAL, berak abiarazi zuela presoen sakabanaketa, autonomia prozesua geldiarazi zuela, industria birmoldatzeko planak gauzatu zituela, eta lan prekarietatea eta malgutasuna garatzeko lan erreformarik erabakigarrienak egin zituela eta, besteak beste, pentsioen erreforma hasi zuela Toledoko itunarekin (Moncloako itun "sozial" moduko bat).

(39) Terrorismoaren aurkako itunak PSOE "PPren konstituzio patriotismora" irentsi du. Alternatibarik ezak PSOE "txapapotezko" oposizioan, erabat abagunezko eta eredu politiko eta soziala aldatzeko inolako edukirik gabeko oposizioan lagatzen du. Hauskortasun hori agerian geratu da maiatzaren 25eko udal eta autonomia erkidegoetako hauteskundeetan, non berriro nekez aurkituko dituen baldintzekin, ezin izan baitio aldaketako alternatiba bati inolako sinesgarritasunik eman.

(40) PSOE Estatu ereduaren inguruan politikoki neutralizatuta egoteak PSE eta PSNren Hego Euskal Herrirako eskaintza baldintzatzen du. Inolako maniobra margenik gabe, PPren estrategiaren zaintzaile eta benetako "Troyako zaldi" bihurtu den "aski da" batekin, PSE eta PSNn subsidiariotasun eta mendetasun sentsazioa areagotuz joango da, eta nortasun politikoaren krisi gero eta handiagoa eragin ahalko zaie.

(41) Katalunian eta Galizian PSG eta PSCren jarrera politikoa eta, era berean, CiUrena baldintzatzen dituen eskaintza politiko independentista eta ezkertiarra sendotu da. Nazionalismo historikoak deritzen horietan independentismo ezkertiarrak daraman goranzko bilakaera horrek PSOE Estatu ereduaren gainean gogoeta aurreratuagoa egitera behartzen du (Maragallen PSC) baina, aldi berean, espainiar konstituzioaren ikuspenean PPren estelari jarraitzeko beharrarekin talka egiten du.

(42) PPren ultraeskuinak jendearen sinesgarritasuna lortu badu, horretan espainiar sindikalismoak (CCOO eta UGT) erantzukizun handia dauka. Itun sozial iraunkorreko ia sei urteren buruan, frankismoaren osteko eskuinak behar zuen "herri" itxura lortu du eta, bien bitartean, erreforma estrukturalak egiteari ekin dio eta PSOE patriotismo konstituzionalera lotu du.

(43) PPk planteatutako lan erreformek PSOEk zabaldutako prozesua ixtera datoz. Espainiar sozialdemokraziak, enpresaburuen berbaldian, "lan merkaturako sarrera malgutzeko" erreformei ekiten badie, orain PPk "lan merkatutik irtetea malgutzeko" bultzatzen ditu, hau da, langileak kalean lagatzea merke eta errazago egin ahal izateko. Bi dinamika horiek, kasu askotan, CCOO eta UGTren laguntzarekin osatu dira.

2. LAB eta Euskal Herriko prozesu politikoa

2.1. Abagune politikoaren giltzarriak

(44) Euskal Herria garrantzi historiko ikaragarriko unea bizitzen ari da. Gure herriko erakunde politiko, sindikal eta sozialen borroka eta erresistentziarako gaitasuna eta indar demokratikoa Espainiar eta frantses estatuek ezarritako menderapen eta berenganatze ereduak neutralizatzen ari dira.

(45) Hego Euskal Herriko autonomismoa, eta Ipar Euskal Herria existitzen denik ere ez onartzea, euskal jendartea gainditzen ari den etapak dira. Hau beste egoera politiko baterako prozesua da, Euskal Herriaren onarpena eta Euskal Herriko lurralde guztietako gizonemakumeen borondatearen errespetua oinarri izango dituen egoerarako prozesua, alegia. Estatuen estrategia trantsizio hau geldiaraztea da. horretarako, gure herriaren onarpena eta autodeterminazioa aldarrikatzen dugun eta gehiengoa garen sektore politiko, sindikal eta sozialen jarrera baldintzatzen ahalegiten dira.

(46) Alabaina, Hego Euskal Herrian indarrean dagoen autonomismoak kontuan hartu beharreko oinarri soziala daukan arren, eredu autonomikoa, euskal nazio eta demokrazia eskakizunari erantzuteko terapia modura, politikoki agortuta dago.

(47) Eredu autonomikoaren krisi honek, hala ere, ez digu Nafarroan "unionismoa" dei geniezaiokeena zenbateraino finkatuta dagoen gutxietsarazi behar; indar politiko espainiar zaleek "nafartasun" hori Euskal Herriaren aurka jartzeko erabiltzen dute. Autonomiaren krisi orokorraren oinarritik abiatu arren, UPN, PSN eta CDNk Nafarroako foru hobekuntzari ematen dioten egonkortasun sozialaren gradua desberdintzat jo behar dugu.

(48) Gure azken biltzarretik hona, Espainiar estatuak euskal jendarte osoaren aurkako errepresio eta inposizio politika areagotu du eta, era berean, konfrontazio eta tentsio sozialaren maila zein eskubide urraketa ikaragarri larritu ditu. Trantsizio prozesua baldintzatzeko Espainiar estatua darabilen ofentsiba honek (ezker abertzalearen egitura politikoak legez kanpo lagatzea, euskararen aurkako erasoa, euskal presoen aurkako errepresioa gogortzea...) indarreko marko politikoa hondatu du, zilegitasun politiko eta demokratikoko terminoetan baliorik gabe uzteraino.

(49) Espainiar estatuak lege, epaile eta komunikabide sare osoa erabiltzen du Euskal Herriaren kontra. Eraso honen araberakoa izan behar da gure herriko sektore abertzale eta demokratikoen erantzuna. Harresi soziala finkatzea ezinbestekoa zaigu, konponbide demokratikorako proposamen batez eta instituzioen zein eragile sozialen jarduteko ahalmenaz, marko politiko berrirantz urratsak egin ahal izan ditzagun; hau da, eraikuntza nazional eta sozialerako prozesua moldatu eta gauzatu ahal izan dezagun.

(50) Frantses estatuari dagokionez, Ipar Euskal Herriak erakunde politiko propioak behar dituelako aldarrikapena eta eztabaida piztu dira, gobernuak berak hasitako deszentralizatze prozesua, Korsikan planteatutako erreferenduma eta gure nortasun ikurren defentsan egindako lana direla eta.

(51) Frantziako lurraldearen berrantolamendu berrian departamentuak nazio errealitateei lotuta daude (Korsika, Bretainia...), eta gai ekonomiko eta sozialei ere bai. Ipar Euskal Herriaren kasuan, garbi dago bai Bordeleko bai Tolosako muturrak urrun geratzen direla eta, hartara, Euskal Herria garapen ekonomiko eta sozialeko eremu estrategiko bilakatzen da, modu naturalez. Alegia, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoaren garapena Euskal Herri osoaren garapenari lotuta doa, eta hori esparru politiko eta sozial abertzaletik beretik baino harantzago doan ageriko gaia da.

(52) Mugimendu abertzaleak departamentuaren plateamendua gainditu behar du. Horretarako, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarekin batera, Ipar Euskal Herriaren garapen kultural eta ekonomikoa ahalbideratuko duen erakunde egitura exijitu behar dugu. Honetaz gain, etorkizuna nazio moduan eraikitzeko, merkatu kooperazioa eta azpiegituren garapena ere aldarrikatu behar dugu.

(53) Trantsizio politikoko prozesuak nazio dimentsioa hartu du, estreinako, Euskal Herriaren historia hurbilean. Lurralde bakoitzaren berariazko errealitateak kontuan izanik, Euskal Herriak orain heldu behar dion ziklo politikoan burujabetzazko nazio estrategia antolatu ahal izan ez eze, hala egitea ezinbesteko ere izango du.

(54) Euskal nazio subjektuaren eta zilegizko bere eskubideen eraikuntzak Estatu espainiar eta frantsesaren irentsi edo beren baitaratzeko taktika guztiak hausten ditu. Estatu espainiarra Udalbiltzarekin itsu-itsuan tematuta badago Euskal Herriaren nazio egituraketa mugimendu abertzalearen estrategian erabakitzailea delako da.

(55) Azkeneko lau urteotan jendartean oihartzun zabala izan duen bi dimentsiotako pultsuaren aurrean gaude. Batetik, Estatuek beren bitarteko politiko, judizial eta hedabideetako guztiekin erantzuten diete Euskal Herrian aldaketa politikoa eskatzen duten alor guztien aurka. Ofentsiba hau ezker abertzalearen aurka bideratzen da nagusiki, bera baita Euskal Herrian indarreko markoan zalantzan jarrarazi dituena eta, aldaketa politiko hori bidera dezaten alternatiba instituzional eta sozialak martxan jartzeko oinarrizko muina ere bai.

(56) Bestalde, Lizarra-Garazikoa izan zenetik, EAJren eta ezker abertzalearen arteko pultsua oso konstante garrantzitsua izan da. Geure akatsak eta prozesua instituzioen eta jendartearen aldetik baldintzatzeko estrategia artikulatzeko zailtasunak hor dauden arren, agerian geratzen da ezker abertzaleak erreferentzia eta ekimena galtzen duen orotan, EAJ noraezean ibili dela eta berehala estatutuaren bidea birsortzeko eremuetarantz atzera egiteko beti prest .

(57) PP-PSOEk ezker abertzalea ahultzeko egiten ari diren presioaz baliatuz eta ezker abertzalearen maiatzaren 13ko atzerakadaren ostean (Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, 2001), EAJk abertzaletasunaren ordezkaritza eta mintzakide izaera bere egitera begirako kudeaketa politikoa egin du, Euskal Autonomia Erkidegoan "Moncloako estatutuaren bigarren edizioa sustatu nahirik.

(58) Ibarretxe plana Moncloako Estatutuaren bigarren edizio bihur daiteke, literatura eta zelofan abertzale ugariren ostean, EAJ-Eak Espainiar Estatuarekin itun politikoa egiteko eskaintza bilakatzen bada.

(59) EAJ eta EAk benetako praxian aldaketa politikoko prozesuari aurre egiteko ausardia eta borondaterik ez dutela erakutsi dute: kontzertu ekonomikoa, legez kanporatzea eta irai-

laren 14ko Bilboko manifestazioko gertakariak, unibertsitateen legea, kalitate legea, dekretutzarra, Egunkariaren itxiera, alderdi politikoen legea, Udalbitzari erasoa, Auzitegi Gorenaren erabakiak..., gertakari katea luzea izan da, non EAJ eta EAk zuzentzen duten erakundeen esparrua jendartearen atzetik egon ez eze, batzuetan estatuaren etengabeko hordagoei ere patetikoki men egin baitiete.

(60) Batasuna legez kanpo uzteak eta ezker abertzalearen eremu sozial eta politikoa sakabanatzeko helburuak huts egin dute maiatzaren 25eko hauteskundeetan. ezker abertzalea egoera horretan egonda eta EAJ-EA, etekina atera nahirik, "baliozko botoa" eskatuta, hala ere, AuBk eta herri plataformek oso boto garrantzitsua lortu zituzten, bai kantitateagatik bai eta boto horien kalitateagatik ere.

(61) Maiatzaren 25eko hauteskunde hauek demokraziaren aurkako erakunde markoa eratu dute, formalki apartheid politikoaren aurka jartzen diren indar politikoek berberek erabili eta baliatu nahi dutena. Herritarren ordezkaritza AuBri eta herri plataformei emadako botoa kontuan hartuta berriro antolatu behar dela ezinbesteko erreferentzia izango da, gatazka demokratikoki konpontzera bidera litezkeen akordio politikoetara heldu orduko.

(62) Ibarretxek (EAJ-EA) irailean egin zuen definizio politikoak eztabaida politikoa ekarri du, eta ezker abertzaleak, horren ildotik, Estatuen menderatze estrategien aurrean indarrak pilatu eta aktibatzera eraman gaitzaten proposamen eta konpromisoak zehazteko ekarpenak egin eta modu onean eta eraikitzailean jarduteko borondatea daukala adierazi du.

(63) Anaitasunako adierazpenak elkarrizketarako espazio egonkorra finkatu nahi duela uste dugu, une historiko honek eskatzen dizkigun eduki eta konpromisoak jorratu eta bateratuz bideratu ahal izan ditzagun.

(64) Bestalde, Nazio Eztabaidagunea Euskal Herriko egoeraren diagnostikoa egiteko, gatazka gainditzeko proposamenak egiteko, eszenatoki politiko berri baterako trantsizio prozesuaren oinarriak zehazteko eta, era berean, akordio eta konpromiso mailak kudeatuko dituen antolakuntzaren bitartekoa definitzeko balio handiko ekimena da.

(65) Aurrekoari lotuta, espainiar hauteskundeei begira ezker abertzaleak Bergaran egindako proposamena (autodeterminazioaren inguruan bat egitekoa, alegia) indar abertzale eta aurrerakoiak batzeko asmo sendoan oinarritzen da, Euskal Herria eta euskal jendea errespetatuak izan daitezela lortzeko. Planteamendu honekin bat egiten dugu, bai funtsezko filosofian, bai eta proposamenaren termino zehatzetan.

(66) Era berean, mugimendu sindikal eta sozialaren sektore garrantzitsuen eredu politiko eta soziala (ELAren kasua batez ere) aldatuz joan da eta honek klase eremu abertzale batean bat egitea bideratu du. Gure ustez, LABen proiektua -klase sindikalismoa eta burujabetzaren aldeko apustuaren erreferente nagusia sindikatuen artean- garatuz joan den heinean, sektore sindikal zabalekin aliantza objektiboak egiteko baldintzak sortuz joan dira, ezker abertzale osoaren estrategian.

(67) Azkenik, koiuntura politikoaren errepaso honetan, ezin dezakegu aipatu gabe utzi euskal jendartearen balioek eskumarantz egin dutela eta euskal langileria ere tartean dagoela.

Honek burujabetzarako prozesua alderdi sozio-ekonomikotik ahulago izatea dakar. Euskal mugimendu sindikalak eta sektore abertzaleek borroka ideologikoari etengabe ekin behar diote, prozesu soberanista gure herriko gehiengo langilearentzat baliagarria dela erakusteko. Estatuek sektore ekonomikoak (CEOE eta beste arlo batzuk) aktibatu dituzte aldaketa politikoaren prozesuari aurre egiteko, baina honek hasi baino ez du egin, eta euskal lobby ekonomiko eta sozialaren premia argia da, non sindikalismoak funtsezko eragina izan behar duen.

2.2. Nazio eta burujabetza estrategiaren alde Aldaketa politiko eta soziala, gatazkaren konponbide demokratikoan oinarriturik

2.2.1. Gogoeta orokorrak

(68) LAB erakunde sindikal abertzalea eta klasekoa da, eta ezker abertzalearen estrategia orokorrean txertatuta dago. Gure proiektu sindikalaren barruan aniztasun ideologikoa dago, baina elkarren ondoan bizi eta garatzeko gai gara, LABeko gizon eta emakumeok oinarrizko lan erreferentzia eta dinamiketan bat gatozelako. Euskal Herrian independentzia eta sozialismora heltzeko prozesuaren barruan aldaketa politiko eta soziala sustatzen duten sektoreak bildu eta aktibatzera bideratzen dira gure dinamikak.

(69) Egoera politikoaz egin dugun diagnostiko honetan oinarriturik, uste dugu mugimendu abertzalea ofentsiba politiko eta sozialerako oinarriak, edukiak eta tresnak jartzeko moduan dagoela. Ofentsiba honek eremu guztietan joan beharko da aktiboak eta eraginak gehituz: eremu instituzionalean, sindikalean, intelektualean, sozialean, kulturan...

(70) Horrela, ezker abertzaleak euskal independentismo eta sozialismoa berriro bil daitezen bultzatu behar du, burujabetza eta klase blokea taktika eta estrategiaz hornitu behar du, eta fase politiko berria ezaugarrituko duen antolakuntza eredua definitzeko baldintzak sortu behar ditu. Indar indibidual eta kolektiboak pilatu eta aktibatze horrek forma desberdinak har ditzake, baina bideratzen jakin behar dugu, Madrilek eta Parisek esku hartzeko duten ahalmenari jaramonik egin gabe.

(71) Prozesu politikoaren bilakaerari dagokionez, ezker abertzalearen proiektuaren sendotasuna, eta sare sozial, sindikal eta kulturalaren aktibazioa giltzarriak dira EAJren jarrera politikoek erakusten duten Madrilekin edo interes ekonomiko frantsesekin itunak egiteko joera baldintzatzeko.

(72) Eremu abertzale eta aurrerakoian indarrak bildu eta aktibatzeko prozesua sustatzeko xedean, ETAren ekimen politikoak erabakigarriak dira, garrantzi eta oihartzuneko eragile politikoa baita.

2.2.2. Konponbide demokratikoa aldaketa politikoren oinarri.

(73) Lizarra-Garaziko akordioa inflexio puntua izan zen eta oraindik ere funtsezko erreferente izaten jarraitzen du gatazka ezaugarritzeko orduan, gatazka bideratzeko metodologian eta gatazka konpontzeko oinarrietan: herriarenak dira hitza eta erabakia. Beraz, gatazka gainditzeko eta bizikidetasun demokratikoa ezartzeko oinarria Euskal Herriaren onarpena eta euskal herritarren borondatearen errespetua dira.

(74) Izan ere, eta nazioarteko zuzenbidean islatu den bezala, autodeterminazio eskubidea eskubide demokratikoa da eta ez errebindikazio politikoa. Gainera, Europaren erdi-erdian garatu eta, ondorioz, Estatu berriak eratu izanak eskubide hori deskolonizatzearen eskemetan kokatzen zutenen argudioak hautsi ditu.

(75) Alabaina, Estatu espainiarrak eta frantsesak ez dute konponbide demokratikorik onartu nahi eta euskal herriaren borondatea beren konstituzioen markoetan bahituta edukitzen jarraitu nahi dute. Ustezko planteamendu demokratikoetatik, Euskal Herriko gizon eta emakumeoi muga politikoak ezartzen tematuta daude. Eta hori, berez, demokraziari eraso egitea da.

(76) Euskal Herrian gatazka konponduko bada ez da proiektu hau ala bestea, eredu politiko hau ala bestea ezarrita konponduko, baizik eta ideiak eta proiektuak konfrontaturik baizik. Euskal jendartea izango da ondoren barru eta kanpoko harremanetarako ereduak erabakiko dituena, inolako xantaiarik edo baldintzarik gabe. Oinarrizko eskubide guztiak errespetatzen direnean, herritarren borondateak erabakiko du Euskal Herriaren etorkizuna.

(77) Hau da, Euskal Herriko indar demokratikoek gatazka konpontzeko proposamen politikoa definitu eta euskal jendarteari, bi Estatuei eta nazioarteko komunitateari planteatu behar diote. Proposamen horren gainean Euskal Herri osoan herri kontsulta egin beharko da eta, hartara, euskal jendartea bihurtuko da indarkeria eta eskubide urraketa oro gainditzea ekarriko duen konponbide demokratikora iristeko prozesuaren protagonista. Gai honi dagokionez, ETAk behin eta berriro adierazi du denon arteko proposamen eta konpromisoetan parte hartzeko prest dagoela.

(78) Beraz, herri kontsulta oso bitarteko garrantzitsua da. Edukien eta subjektuaren gaineko adostasuna lortu beharko da. Proposamenaren indar demokratikoa eta babes soziala funtsezkoak izango dira bi Estatuen jarrera baldintzatu eta gatazkaren konponbidea nazioarteko agendan kokatzeko.

(79) Gatazkaren sorburua eta ondorio guztiak konponbidearen barruan sartu behar dira eta, hartara, presoen eskubideen aldeko borroka ere atal garrantzitsua da.

(80) LABek konpromiso mailarik gorena barneratu behar du langileriaren artean konponbide demokratikoaren aldeko dinamika soziala garatzeko. Helburu berarekin, gure erakundeak espainiar eta frantses administrazioen pean dauden herrietako erakunde sindikalekin harremanak izan eta lankidetzan aritzeko egindako urrats positiboak ere garatu behar dira.

2.2.3. Burujabetza eta aldaketa soziala

2.2.3.1. Erreferentzia estrategikoak

(81) LAB independentziaren eta, ondorioz, Europan eta munduan, beste edozein estatu edo nazio modura, bere nortasunaz parte hartuko duen Euskal estatua sortzearen alde dago.

(82) Euskal Herriaren burujabetza ez da inoren aurka eraikitzen, are gehiago, demokrazian eta komunitate desberdinen arteko harremanen normaltasunean oinarritzen den alternatiba

da. Independentzia alternatiba modura planteatzen dugu, estatuaren kontzepzio klasikoa moldatuz joan den lotura politiko, ekonomiko eta kulturalen munduan balio positibo modura. Burujabetza edo Euskal estatu bat sortzea pobretzearekin edo bakartzearekin lotzea espainiar eta frantses nazionalismoek beldurra eta segurtasunik eza pizteko darabilten estrategia da.

(83) Gaur egungo globalizazio neoliberal eta merkatu diktadura egoeran, langileriarentzat ona izango litzateke eredu ekonomikoa, soziala eta kulturala garatzeko ahalmena izango lukeen esparru instituzionala edukitzea. Burujabetza politiko eta ekonomikoaren aldeko borrokak langileria eta herria batzen laguntzen du eskubide politiko eta sozialen alde egiteko, eta beraz, globalizazio neoliberalari erantzuna emateko bidea ere bada.

(84) Euskal estatuaren eraketari aurre egitean, gehiengo langileari dimentsio sozial onuragarria emateko, hau da, eresu sozialista eraikitzeko egiten dugu. gauza argia da eraikuntza nazionala eta soziala banaezinak direla. Horrexegatik, langileriaren gehiengoak independentziaren alde egingo du, independentzia horrek berdintasun eta justizia sozial balioak defendatzen dituen heinean.

(85) Euskal eredu sozialista pixkanaka moldatuz joan behar da, bestelako errealitate edo esperientzien mimetismorik gabe. Hezkuntza eta sanitate publiko unibertsala finkatzeko gai izango den eredu politikoa defendatu behar dugu; etxebizitza publikoko politika; konpentsatu eta orekatzeko balioko suen zerga politika; lan harremanetarako euskal esparrua, gehiengo langilearen indarra enplegu eta la harreman onuragarriak lortzeko bideratuko duena; emakume eta gizonen eskubide eta aukerak berdinak izatea bermatuko duen sektore publikoa, eta garapen ekonomiko eta soziala bateratuko dituena. Hauek guztiak izango lirateke euskal demokrazia sozialistaren ezaugarriak.

(86) Euskal estatuak, halaber, nazioarteko elkartasuna sustatzeko instituzio esparru burujabea ere izan behar du. LABen ustez, nazio modura burujabe izatea eta nazioartekotasuna elkarren osagarri dira. Euskal nazioaren eraikuntza zapaldutako beste herri eta jendarte alor batzuekiko elkartasunerako tresna izango da.

2.2.3.2. Aldaketa politiko eta sozialaren giltzarriak

(87) Euskal Herriaren eta Espainiar eta Frantses estatuen arteko gatazkaren konponbideak prozesu demokratikoa zabalduko luke eta, herriaren borondatearen arabera, marko politiko berriaren ezaugarriak moldatuz joango lirateke.

(88) Bada egiturazko defizit objektiboa emakumeek eta gizonek jendartean berdintasunez parte hartzea eragozten duena. Burujabetzarako prozesuaren izaera demokratikoak partaidetza parekide izan dadila bermatzea eskatzen du, defizit hori konpondu dadin.

(89) Marko politiko berri batera heltzeko estrategiak hiru ardatz behar ditu. Lehenik eta behin, burujabetzazko espazio politiko, sindikal eta soziala, nazio egitura egonkorraz. Nazio erreferentzia horrek giltzarri izan behar du prozesuaren eztabaidan, zehaztapenean eta kudeaketan eta, era berean, gatazkari konponbide demokratikoa emateko mintzakide politiko bihurtu behar du.

(90) Aldaketa politiko prozesu horretako bigarren ardatza Euskal Herriak nazio mailako instituzio eta egitura behar dituela da. hauek eraikuntza nazional eta sozialaren prozesuan protagonismoa hartuz joan beharko lirateke eta euren legimitatea eta ahalmena euskal herritarren borondateak emango lieke, Euskal Herritik kanpoko erabaki-eremuek oztopatu barik.

(91) Horren harira, LABen ustez Udalbiltza lehenengo euskal nazio erakundea da, eta marko politiko berrirako urratsean erakundeen arteko antolakuntzarako erreferentzia puntua. Ahalmen eta eragingarritasunetan sendotzea da erakundezko trantsizio prozesu baterako oinarrizko eginkizunetako bat, prozesu hori Euskal Herria osatzen duten lurralde desberdinetan indar politikoen korrelazioa bilakatzen den arabera garatuz joango baita.

(92) Hirugarren, aldaketa politiko prozesu hau erakundeetan eta jendartean artikulatu behar da. Aberastasunik handiena euskal jendartean dago, beste eszenatoki baterantz aurrera egiteko konpromiso eta borondate sendoa baitu. Aldaketa politiko baten estrategia erakundeen esparruan zentratzeak estatuen eta beren botere politiko eta judizialen baldintzapean jartzen gaitu, etengabe.

(93) Horrela, gure herriko norbanakoen energiak eta antolatutako indarrak aktibatzea burujabetza proiektuaren atxikimenduan sakontzeko bide bat da. Ezker abertzaleak burujabetza eta klasezko bloke bat antolatuz joan behar du, aldaketa prozesuaren motore modura jarrita, egungo atomizazioa gainditu beharko duena.

(94) Bloke abertzale eta ezkertiar honetan, mugimendu sindikala funtsezko eragilea da. Oinarri sozial antolatu garrantzitsua dauka eta langileen gehiengoak zilegitasuna ematen dio. Honek erantzukizun eta protagonismo handia ematen dizkiote aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borrokan.

(95) Gogoeta honen ildotik, Gernikan egindako proposamena berresten dugu (2001eko apirila), non euskal sindikalismoaren ekintzaren batasunean fase berria ireki behar zela finkatu baikenuen. Burujabetzaren prozesuaren eta bere ezaugarrien gaineko oinarri orokorretatik, lan harremanetako eta babes sozialeko euskal esparruari eta euskal eremu sozioekonomikoari forma emateko estrategia definitzeko fasea, hain zuzen. Konpromiso horiek funtzionamenduko egitura egonkor baten bidez kudeatu beharko lirateke.

(96) LABen ustez marko politiko berriaren, burujabetza prozesuaren alde gauden sektoreok ekintza politiko eta sozialeko planak finkatu behar ditugu, nazio proiektu baterako estrategikoak diren esparruetan: euskara, hezkuntza eredua, antolamendu ekonomikoa...

(97) Era berean, borroka ideologikoa eta informazioa oinarrizko faktoreak dira jendartea aktibatzeko eta halako prozesu batean aurrera egiteko. Antolamendu maila zabalari komunikazio orokor eta tokian tokiko komunikazioko sarea gehitu behar zaio, jendarte osora heldu ahal izateko eta estatuek beren zerbitzura dituzten hedabide handi horiekin egiten duten interferentzia eta toxikazioa baldintzatzeko. Teknologia berriez baliatzea eta herritarren komunikaziorako formatu zuzen eta gertukoak erabiltzea aldaketa politikoaren prozesuan parte hartzen duten eragile eta egitura guztiek definitu behar duten eginkizuna da.

(98) Azkenik, zehaztu behar dugu euskal herritarren kontsultaren mende jartzen den edozein marko politiko berri beste edozein alternatiba edo proposamen politikora zabalik egon behar dela. Ez dago euskal borondateari amaiera ematen dion marko politikorik, euskal borondatea baita beti ere bere eredu politikoa erabaki behar duena.

2.3. Burujabetza prozesua esparru soziolaboralean

2.3.1. Gogoeta orokorrak

(99) Gaurko markoak agerian utzi du hainbat gabezia dituela Euskal Herriko lurralde guztietako langileen beharrizanei erantzungo dien eta justizian eta elkartasunean oinarrituta egongo den eradu sozial eta ekonomikoan aurre egiteko.

(100) Madril eta Parideko gobernuen inposaketa ekonomiko eta soziolaboral etengabeek klase borrokari, aldaketa sozialerako borrokari, alegia, kalte egiten diote etengabe. Gobernu hauek Euskal Herrian lan erreformak eta erreforma sozialak ezarri dituzte bata bestearen atzean eta langileriaren eskubideak eta lorpenak suntsituz joan dira. Honen ondorioz, lan egoeraren ezaugarriak kontratazio prekarioa, kaleratze librea eta babes sozialaren gero eta exkaxagoa dira, besteak beste.

(101) Honek zera dakar, alde soziala eta eraikuntza nazionalaren prozesua batera doazela. Eraikuntza nazionalaren prozesua, beraz, langileriaren gehiengoak babesturik izan beharko da eta, horretarako, ezinbestekoa da gai izatea eta hainbat bitarteko edukitzea herriaren eraikuntza ekonomiko eta sozialari ekiteko eta, horrela, gehiengo langilearen interes objektiboei erantzuteko.

(102) Euskal sindikalismoak burujabetza prozesuaren dimentsio ekonomiko-soziala bermatu behar ditu eta, honekin batera, aldaketa sozialerako borrokan eraginkorra izan eta benetako protagonismoa hartu behar du. Horretarako, zeregin garrantzitsu bi dauzka: lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrua eratu eta euskal esparru sozioekonomikoa zehaztu. Hau da, LHEE beharrezko dugu geure indar soziala gauzatu eta bideratzeko.

(103) Sindikalismoak betekizun estrategikoa dauka burujabetza mugimenduaren oinarri soziala hedatzeko. Horren ildotik, guk uste dugu ez dagoela planteamendu neoliberaletatik burujabetza prozesurik gauzatzerik, halako planteamenduek ezin izango baitute inoiz jendartearen gehiengoaren babesik erakarri. Horregatik, gure iritzia da EAJk bere jarrerarekin sostengatzen duen politika neoliberala, berez, burujabetzaren aldeko jarrera edo eskaintzarik zabaltzearekin kontraesanean dagoela.

2.3.2. Lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrura heltzeko estrategia

(104) Lehenago ere esan dugunez, sindikalismo abertzaleak gogoeta eta eztabaida eremua antolatu behar du lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrurantz joateko estrategia zehazteko. Adierazpenaren fasetik praxiaren fasera igaro behar dugu eta horretarako interbentzio plan zehatza egin eta esparru horren aldeko borrokaren agenda finkatu behar dugu. Helburu horretan sartzen da Euskal Herriko Sindikatuen Arteko Konferentzia.

(105) Azken garaietan, esparru horren errebindikazioa sindikatuen berbaldi orokorrean sartuta geratu da, baina ez dauka euskal langileriaren berarengandik dagokion protagonismoaren bultzadarik. Alabaina, planaren hartzaile nagusiak langileak izan beharko lirateke, eta beraiek antzeman behar dute zergatik eta zertarako behar den LHEE delako hori. Beraz, LABek Euskal Herri osoan "Euskal Herrian lan eta bizi, berton erabaki" lelopean zuzen jorratutako jarduera sakondu eta garatu beharrean gaude.

(106) Ekintza politiko-instituzionala oso garrantzitsua da, eta betekizun saihestezina dauka lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrua eratzeko. Beraz, LHEE garatzeko, horren alde dauden erakunde eta aukera politikoek praxi eragingarria barneratu behar dute, euskal sindikatuen gehiengoarekin eta langileria osoaren protagonismoarekin.

(107) Gaur erakundeetan parte hartzeko dauzkagun aukerak (LHB, EGB, Nafarroako Lan Auzitegia, Garapen Kontseilua...) gai soziolaboraletan botere politikorik ez daukaten erakundeetatik dira sortuak, eta honek baldintzatu egiten ditu. Agortuta dagoen markoaren bitarteko agortuak dira. Beraz, sindikalismoak benetako eremua behar du, non hitza izango duen eta maila instituzionalean zein sozialean interbentzio aukera izango duen. Eremu hau eratuz joateko, ezinbestekoa da interbentzio ildoa finkatzea.

(108) Lan harremanetarako erakundezko diseinu berriak oraingo bitartekoak eta beren ezaugarriak kontuan hartu behar ditu. Sindikalismoak mintzakide aktiboa izan behar du nazio, tokian tokiko zein herrialde esparruetan, eta bere ekintza sindikalak lan eta babes sozialeko arazoei ez eze, lurralde antolamendu, azpiegitura, etxebizitza, industria, ekonomia politika eta garapen ereduaren inguruko arazo eta gaiei ere erantzun behar die.

(109) Horren ildotik, LABek uste du sindikalismoak benetan parte hartzeko markoak planteatu behar dituela enplegu eta garapen batzordeetan eta herrialde mailako erakundeetan. Hegoaldeko Aldundiek eta Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak -edota gerora sor litezkeen erakundeek- arbitratzen dituzten politika ekonomiko, sozial eta industrialetan benetan parte hartuko dugun eremua aldarrikatzen dugu. Eremu instituzional hauetan egonda eta bertan parte hartuta, eta geure ekintza sindikalaz batera, joango gara kontra-botere sozioekonomikoa izango den sindikalismoa eratuz.

2.3.3. Lan harreman eta babes sozialerako euskal esparruaren oinarrizko edukiak

(110) Legegintza ahalmen erabatekoa eta arau soziolaboralak zehazteko orduan parte hartzea bermatuko duten bitartekoak; enplegu politika aktibo zein pasiboak eta lanbide heziketa garatu; langileen eta enpresaburuen ekarpenekin Gizarte Segurantza Sistema finkatu, arautzailea izango den sistema eta euskal herritar guztientzako politika soziala bermatuko duena. Hauexek dira lan harremanetarako euskal esparruaren oinarrizko edukiak.

(111) Negoziazio kolektiboko euskal esparrua LHEEaren atal erabakigarria da. Negoziazio kolektiboa alor eta enpresa mailan behar da artikulatuz joan, estatu mailako negoziazio esparrurik ezarri gabe. LABen iritziz Euskal Herrian halako negoziazio kolektibo bat oso ondo molda eta batera daiteke dimentsio handiagoko negoziazio eremuak jorratu behar dituenean europar sindikalismoak aurkitzen dituen berriekin. Europar eremuan negoziazio kolektiboaren ahalbidea egun aipamena besterik ez da eta, gainera, ondo antolatuta ez badago, burokratizazioa areagotzea eta, ondorioz, langileriaren jarrerak ahultzea gerta liteke.

(112) Bestalde, LHEEk langileen ordezkaritzaren metodoak birmoldarazi behar ditu. Ordezkaritza sindikalaren sistema misto baten gaineko eztabaidari heldu beharko litzaioke, langabeen, langile autonomoen eta enpresa txikietako langileen partaidetzari proiekziorik emateko.

2.3.4. Ekintza sindikala lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrura heltzeko estrategian

(113) Euskal Herriko mugimendu sindikalak interbentzio ildo bikoitza bateratu behar du lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrura heltzeko estrategian. Batetik, ofentsiba ideologiko eta soziala sendotu eta areagotu behar da, eta norabide horretan adostasun guneak irabaziz joan. Bestalde, erakundeak eta patronalak Euskal Herrian elkarrizketa sozialeko eremuak eratzera behartu behar dira, sektore arteko akordioen bidez enplegu, lan osasun, baldintza eta aukera berdintasun, eta abarren gaineko neurriak edo proposamenak definitzeko, bi estatuen ezarpenak alboratuta.

(114) Horren harira, LABek 2002ko irailean egindako elkarrizketa sozialerako proposamenaren balioa berresten du, eta gehiengo sindikal abertzaleak bere interpelazioa eta errebindikazio indarra norabide horretan urrats esanguratsuak egitera bideratu behar ditu.

(115) Jada azpimarratu dugun bezala, negoziazio kolektiboa bitarteko garrantzitsua da lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrua finkatzeko. Enpresan, sektorean eta balizko nazio esparruetan negoziazio kolektiboa antolatzea eragingarritasunez eta ikuspegi estrategikoz egin behar den kontua da. Horretarako kontrako faktorea konbenio edo hitzarmenen indarraldietako sinkroniarik eza da. Era berean, berariazko plana ezarri behar dugu, oraingo interpelazio fasea gainditzeko, estatu mailako esparruen eraginpean dauden enpresei dagokienez.

(116) Negoziazio kolektiboko oraingo egiturari begira, birmoldatu behar da, jarduerak multzoka biltzeko eta bai langileentzat bai sindikatuentzat oso txarra den atomizazioa gainditzeko.

(117) Bestalde, lan harremanen eta babes sozialaren edukietan klase behar eta interesetatik aurrera egiteak lan harremanen eraketaren izaera patriarkala zalantzan jartzera behartzen gaitu, ez baitute lan, familia eta pertsona mailako bizitza uztartzeko beharra pertsona guztiek dutela kontuan hartzen. Egiturazko defizit horrek gizon eta emakumeek lanean eta etxeko eta bizitzako denbora, irismen, prestutasun eta partaidetza desberdinak izatea dakar. Uztartzearen gaineko sasi-berbeta merkeen gainetik, emakumeak enpleguan subsidiarioki eta baztertuta egon daitezen finkatzen baitute, eta pertsona, bizikide eta langile modura ditugun erantzukizunetan emakume eta gizonok elkarren osagarri izan gaitezen eta eskubide eta aukera berdintasunean oinarrituko den lan harremanen eredu berria eraiki behar dugu.

2.3.5. Patronala eta lan harremanetarako euskal esparrua

(118) Hego Euskal Herriko patronalak (Adegi, Cebek, SEA, CEN) aurka ageri zaizkigu, beligerante ere esan genezake, lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrua eratzeari dagokionez, eta atxikita dauden estatuko egituren esanen mende zintzo eusten diote (CEOE). MEDEF patronal frantsesak ere jarrera berbera dauka.

(119) CEOEk erabat ukatzen ditu "tokian tokiko esparruak" (euskal, kataluniar edo galiziar kasuetan): "Espainiak ekonomia eta lan merkatu bakarra izan behar du"; eta P.Pren Gobernuaren Euskal Herriaren aurkako estrategian beste gotorleku baten modura jarri da.

(120) Antolaketazko harreman honek, klase apustuarekin batera, euskal patronala argi eta garbi neoliberala den lan harremanen eredura eraman du: prekarietatea Europako batez bestekoa baino %20 goragoko kotetara eraman du eta mozkin eta esplotazio bitarteko modura erabiltzen du; estatuko lan erreforma guztiak babesten ditu; erabateko agintekeria eta handikeriaz jokatzen du erakunde sindikalen aurrean.

(121) Euskal Herrian dagoen enpresaburuen ustezko aniztasun ideologikorik ez da inondik antzematen. Baldin badago, bestelako edozein antolamendu eredu baldintzatu eta belduRrarazten duten egitura profesionalen zuzendaritzak neutralizatzen ari dira. Egun euskal patronalaren egitura instituzionala aldaketaren eta Euskal Herrirako konponbide politiko demokratikoaren aurkako morroi bihurtu da.

(122) Confebask, CEN edo MEDEFeko zuzendaritzetatik segurtasunik eza eta ezegonkortasun ekonomikoa aipatzen dutenean, inolako irizpide objektibotan ez oinarritzeaz gain, lortu nahi duten bakarra langileon artean beldurra eragin eta zabaltzea da. Horrekin lortu nahi duten helburu bakarra LHEEren eta Euskal Herrian aldaketa politikorik izatearen aurka jotzea da, Madrilgo eta Pariseko Gobernuen berbaldi eta jarreren haritik beti.

2.4. Euskal esparru sozio-ekonomikoa

2.4.1. Gogoeta orokorrak

(123) Erakunde sindikal bat soziopolitikoa bada, hau ez da bakarrik eredu politikoan darabiltzan erreferentzia moduen ondorioz. honi loturik, enpresaburuen eta administrazio publikoen politika ekonomikoak eta sozialak baldintztzeko gaitasuna eta, era berean, jendarte eredu alternatiboa erdiesteko ahalmena ere eduki behar ditu.

(124) Horren ildotik, euskal esparru sozio-ekonomikoa eratzea ezinbestekoa da geure ahalmen eta baliabideetarako egokia den gure garapen eredua finkatzeko. Izan ere, euskal ekonomia eta produkzio ehunduraren ezaugarriek Euskal Herri osoaren ekonomia garapeneko esparru koherente modura jartzen dute baina, horretarako, ordea, Frantses eta Espainiar estatuek ezarritako muga politiko eta ekonomiko artifizialak gainditu behar dira.

(125) Onartezina da, esaterako, Baxenabarren eta Zuberoan oinarrizko sektoreak Euskal Herrian bertan merkaturatu eta garatzeko bere espaziorik ez izatea, eta horrek herrialde horiek produkzioaren eta demografiaren aldetik desegin daitezen areagotzen du; edo gure herrian garraioaren egiturak, esaterako, Baionan bizi den inori Donostiara zerbitzu publiko arin batean joatea eragoztea, batetik bestera 50 kilometro ere ez dagoenean. Hau da, Euskal Herria benetan egituratu eta antolatuko duten ekonomia eta azpiegituren garapen planak jorratu behar ditugu.

(126) Horregatik, eraikuntza nazional eta sozialerako, hainbat zeregin beteko dituen bitartekoa beharrezkoa da: herriko errealitate ekonomiko eta soziala egingo duena, ekimenak zehaztu, eguneratu eta garapen ekonomiko eta sozial integratu ereduaren erreferente bihurtuko dena. EGB desberdinek, Eustatek zein Iparraldeko Ekonomia Kontseiluak ikuspegi partzial, mugatu eta sortzen dituzten erakundeengana erabat baldintzatutakoa daukate.

Hartara, bada, enpresa, sindikatu, unibertsitate eta komunikabideetatik gogoeta eta ekarpen sozio-ekonomikoko nazio egitura bat moldatu eta dinamika autonomoa eman beharrean gaude.

2.4.2. Lurralde antolamendua

(127) Euskal esparru sozio-ekonomikoa Euskal Herri osoaren garapena eta antolamendua bermatuko dituen komunikazio eta garraio azpiegiturez hornitu behar da. Gure garapen ekonomiko eta soziala ahalbidetuko duen errepide, trenbide eta aire bidezko azpiegituren plan koherentea behar dugu.

(128) Planteatzen dugun azpiegitura planak jendartearen eskaerari erantzun behar dio, garapen jasangarriko eredu baten barruan sartu behar da eta ez da ekonomia interes pribatu edo enpresaburuen interesen arabera egingo.

(129) Eusko Jaurlaritzak proposatutako abiada handiko trena ere gure azpiegitura beharrei erantzuten ez dien beste obra faraoneko bat da, gastu publiko ikaragarri eta alferrik eginikoa dakar, ekologiaren aldetik eraso izugarria izango litzateke eta euskal nekazaritza alor zanpatuari kalte egingo lioke. Horregatik guztiarengatik, AHTren aurka gaudela berresten dugu.

(130) LABek, ordea, Euskal Herriko barru eta kanpo komunikazioetara zein premia sozialetara egokituko den trenbide plana behar dugula berresten du (LAB, EHNE, ELB, ELA eta HIRUk egindako proposamena). Era berean, erakunde politikoei eskatzen die holako eragin ekonomiko eta politikoak lituzkeen proiektuaren inguruko ekarrizketa soziala eta kontsulta martxan jar dezatela. Euskal herritar guztiei proiektu estrategikoen inguruan kontsulta egiteak, jendearen parte hartzea oinarri duen demokraziarantz pausuak egitea dakar. honelako demokrazia da, hain zuzen, LABen apustua.

(131) Sekula amaitzen ez diren errepide azpiegituren aldeko apustua egiten duen zementuaren ekonomia deritzonaren aurrean, garraiabide kolektiboak barik norbanakoen garraiabideak bultzatze hutsean eta itsas portu eta aireportuen zentzurik gabeko hedapenetan oinarritzen diren proiektuak ezesten ditugu. Honen adibidea Hondarribiako aireportuaren zabalpena da; Miarritzeko aireportua 20 kilometrotara egonda, zabalpen honek ez dauka zentzurik. Era berean, Nafarroan iparretik hegorako autopistaren proiektuaren aurka gaude eta, LEIAren jarduerarekin bat eginda, Nafarroa Garaiaren eta Baxenabarren arteko oraingo trazatua hobetzea eskatzen dugu. Beste proiektu batzuen inguruan ere hausnarketa sakona egiteko premia dago, hala nola Pasaiako Badia, Bilbo eta Donostiako zirkunbalazioak, e.a.

2.4.3. Euskal sektore publikoa

(132) Euskal sektore publikoa garatzea ezinbestekoa da Euskal Herriaren nazio eraikuntza lanei ekin ahal izateko. LABentzat euskal sektore publikoak barne eraketa estrategia errotik aldatu behar du, eta euskal jendarte osoaren eskarien araberako plangintza berria jorratu behar du. Horren haritik, herri administrazio demokratiko eta gardenak behar ditugu, herritarren parte hartzea barne hartu eta herritar horien premiei erantzutea helburu nagusi izango dutenak.

(133) Guk aldarrikatzen dugun ereduak, gainera, osagai erabat soziala dauka. Ez da kapitalari eta enpresaburuei zerga politikak, lurra edo azpiegiturak erraztera begira dagoen sektore publikoa. Aitzitik, guk aldarrikatzen dugun sektore publikoaren funtsa Euskal

Herritarren eskakizun sozialei erantzutean datza eta helburu horixe bihurtzen da jarduera politikoen ardatz nagusi.

(134) Honi begira, finantza euskal sektorea sustatu behar dugu. Honetarako, politika publikoak artikulatu eta bitarteko propioak kudeatu behar ditugu; era berean, Europar Batasunean parte hartzeko eskumen osoak eduki behar ditugu, garapen ekonomiko eta sozialeko geure eredua bultzatu ahal izateko. Euskal aurrezko kutxak, izaera soziala duten heinean, finantza sektore honen funtsezko atala izan beharko lirateke.

(135) Merkatuak barik, behar sozialek eta produkzio ereduaren kohesiak erabaki behar dute sektore eta azpisektoreen norabidea eta garapena. Politika publikoak eta industria enpresa publikoak hau horrela izan dadin arduratu behar dira. Industria politikak politika energetiko plana egin beharra dauka nazio mailan, horretarako dauden bitarteko guztiak aprobetxaturik eta etorkizuneko alternatiba modura energia berriztagarrien inguruko neurri zehatzak bultzaturik.

(136) Espekulazioak izugarrizko arazo bilakatu du etxebizitza. Etxebizitza berriak zein erabiliak hainbesterainoko garestitu dira, ezen gazteek ezin baitute ez erostea ez alokatzea lortu. Etxebizitzen inguruko ekimen publikoek honen aurrean egiten duten gauza bakarra da lur publikoa edo errekalifikatua interes inmobiliarioen esku utzi. Gazteak euren kabuz bizitzea ahalbideratuko lukeen benetako etxebizitza politika publikorik ez da egiten. Eta etxebizitzaren inguruko espekulazio hau badoa burbuila finantzieroa sortuz, familien ekonomia eta barne eskaera arriskuan jartzen duena.

2.4.4. Zerga kontuak eta politika sozialak

(137) Zerga politika oso bitarteko garrantzitsua da aberastasunaren banaketan, eta oso lanabes baliagarria gure garapen eredua gidatuko duen euskal sektore publikoa finkatzeko. Alabaina, euskal administrazioek egiten duten zerga politika kapitalaren errentei mesede egin, enpresen errenten iruzurra ahalbidetu eta lan errentak zigortzean oinarritzen da eta horrek gero eta haustura handiagoa sortzen du jandartean.

(138) LABek euskal administrazioei zerbitzu sozial eta soziokomunitarioak garatzeko konpromiso sendoa eskatzen die, lan, pertsona eta familia mailako bizitza uztartu ahal izateko, eta lanpostua galtzen duten edo pentsio bat jasotzen ari den pertsonei duin bizitzeko aukera emango dien prestazio sozialen sistema bermatzeko. Era berean, politika horiek guztiak esparru publikotik gara daitezen eskatzen dugu eta, nolanahi ere, zerbitzuak azpikontratatzeak dakartzan lan baldintzen okertzearen eta prekarietatearen kontura egin ez daitezen bermatzea.

(139) Gehiengo langilearen beharrizanei erantzuteko, baerastasuna banatuko duen politika soziala zehaztu behar da, eta hau aurrekontu politikaren eta gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren eskutik etorri beharko da.

(140) Lanposturik ez daukaten pertsonentzat oinarrizko errenta unibertsala ezartzea, aberastasuna banatzeko bitartekoa izan ez eze, prekarietatearen eta euskal gazteriaren esplotazioaren aurkako antidotorik onena ere bada.

(141) Bestalde, ezinbestekoa da esparru sozio-ekonomikoan eskubide eta aukera berdintasuneko benetako politika bat ezartzea, emakume eta gizonezko langileen artean errentaren, enpleguaren eta pertsona eta familiako erantzukizunen banaketan dagoen partaidetza desberdinak emakumeengan sortzen duen defizit demokratikoa gaindituko bada.

(142) Lan harremanetan eta babes sozialean arautzeko gaitasunak, baita gizarte segurantzaren eta langabeziaren diru baliabideak kudeatzeak, euskal erakundeei ahalmen handia emango liekete Euskal estatuaren funtzio positiboa proiektatzeko .

(143) Gaur egun unibertsaltzat jotzen diren erregimenek hainbat sektore baztertzen edo diskriminatzen dituzte. Beste norbaiten etxeetan lan egiten dutenek osatzen dute sektore hauetako bat. Kasu honetan langileen ia-ia %100 emakumeak dira, etorkinak gero eta gehiago, eta egungo gizarte segurantzak proskribatu egiten ditu. Euskal esparru sozio-ekonomikoak sektore horiek guztiak hartu behar ditu barne.

2.4.5. Osasun sistema

(144) Osasuna oinarrizko eskubidea da, norbanakoarena zein kolektiboa. Ez dago irabazi asmo pribatuaren ez eta merkantilismoaren mende, eta herri ondasun modura hartu behar da, aurrekontu orokorretatik finantzatuz, horretarako behar diren kontrol mekanismoekin.

(145) LABek, osasun zerbitzu publiko, unibertsal, doako, euskaldun eta integrala bermatuko duen Euskal Esparru Sozioekonomiko baten alde egingo du. Lan eta ingurumen-prebentzioa zein pertsonen duintasun eta indibidualtasuna helburu izango duen esparruaren alde.

(146) Kapitalaren eraso estrategiko baten aurrean gaude. MME (Merkataritzaren Munduko Erakundea) eta NMF (Nazioarteko Moneta Fondoa) bezalako erakundeek sistema publikoak -sanitarioak zein babes sozialekoak- akabatzeko politikak inposatzen ari dira (zerbitzuen komertzioaren liberalizaziorako akordio orokorra). Honek jendartearen erantzun sendoa behar du eta guk, klase sindikatua garen heinean, erantzun hori Euskal Herrian antolatu beharra daukagu.

(147) Osasun sistema pribatuaren sustatzearen kontra gogor jo behar dugu. Bultzatze hori, sistema publikotik egiten diren osasun prestakuntzen kontzertazioaren bidez gauzatzen da. Horrez gain, mutua pribatuei funtzio eta baliabideen transferentzien bidez ere burutzen ari da.

(148) Osasun sistema ezin da pribatizatu, ondorioz kalitatea eta unibertsalitatea galduko lirateke eta. Osasun sistemaren pribatizazio esplizitu nahiz estaliaren aurka egin behar da. Osasun sistemak euskal herritarron osasun indibidual eta kolektiboaren zaindaria behar du izan. Merkatu interesak eta osasunaren merkantilizazioa nahi duten kapital transnazionalen interesak alde batera utzi behar dira. Hauek neoliberalismo ekonomikoaren funtsezko elementuak dira. Sistema publikoaren kalitatearen hobetze eta osasun zerbitzurako denon sarbidearen alde borrokatu behar dugu. Horretarako ezinbestekoa da osasun beharretan oinarritutako baliabide publikoen gehitzea.

(149) Estrategia berean, babes sozialaren sistema suntsitzeko zein zerbitzu soziosanitarioak pribatizatzeko oinarria ipiniz doaz. Arreta soziosanitarioa merkantzia bihurtu eta industria produkzio sektore berri bikalatu nahian dabiltza, botere publikoek euskubide sozialen babesle izateari uko egin diezaioten.

2.4.6. Hezkuntza sistema

(150) Euskal Herriak, herri bezala biziraungo badu, bere hezkuntza sistema propioa behar du. Haur hezkuntzatik Unibertsitaterainoko tarte guztiak jasoko dituen sistema nazionala, euskara oinarri izanik bere iraupena eta garapena ziurtatuko duena eta euskal izate kutural, sozial eta ekonomikoa aintzat hartuko duena. Norberaren identitate propioaz jabetzetik abiatu behar gara beste errealitateetara, beste kulturetara, ezagutza unibertsaletara.

(151) LABek egitasmo honetan ildo ezberdinak landu eta bideratuko ditu aipatutako Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala sortze bidean:
- Euskal Herri osoan euskal jendarteari dagozkion hezkuntza eskubideen alde jardungo du.
- Publikoa izango den hezkuntza sistemaren alde egingo du, publikotasun eredu berri bati bide emango dion eta Euskal Herriaren arabera definituz joango den sistema, alegia.
- Euskal Herriko instituzio nazionalen erreferentziapean antolatuz joan beharko den publikotasun eredu berria bultzatuko dugu. Norabide honetan eta sistemaren definizioan, publikotik zein ez publikotik, urratsak egiteko baldintzak sorraraziz joango gara.
- Besteak beste, lehentasunezko hiru egitasmo zehatzen inguruan jarraituko dugu lanean, urrats berriak emanez:
    - Euskalduntzea, oro har, eta murgiltze ereduak bultzatzea bereziki.
    - Euskal kurrikuluaren gauzapena
    - Euskal unibertsitatearen sorrera

2.4.7. Ekonomia soziala

(152) kooperatibn euskal mugimenduak ahalmen handiak dauzka eta gure garapen ekonomiko eta sozialari ekarpen sendoa egin dio. Erreferentzia orokor hau gorabehera, argi dago eztabaida sakonagoa egin behar dela: ereduaren debaluazioa, esplotazio kapitalistaren mekanismo eta moduetan integratu izana, euskal esparro sozio-ekonomikoan inbrikatzeko premia...

(153) Kooperatiben mugimenduak eragile aktiboa izan behar du Euskal Herriaren ekonomia garapenean, merkatu eta mozkin irizpideetan soilik oinarritu barik. Gure herriko eremu deprimituen sustapenean duen erantzukizuna onartu behar du eta, bere merkatu sarearen bidez, gure ekoizpen jarduera lehenetsiko duten laguntza mekanismoak ezarri behar ditu. Ezin zaie epe laburreko merkatu eta mozkinik handieneko irizpide hutsei eutsi errealitate demografiko edo sektorial jakin batzuei erantzuteko orduan.

(154) LABetik sindikatuak interbentzio estrategia landu behar dugu, kooperatiben esparruan sindikatuen presentzia artikulatzeko, lan baldintzak gero eta prekarioago izateari aurre egiteko eta enpresa kooperatiboei eta, hedapenez, lan baltzu anonimoei Euskal Herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren konpromiso sendoa har dezaten eskatzeko.

2.4.8. Ingurumena eta garapen eredua

(155) Ez dago euskal esparru sozio-ekonomikorik eraikitzerik, ikuspegi sozialetik, horri edukia emango dion garapen eredua zein izango den planteatu barik. Garapen eredu jasangarriaren helburuak sektore publikoaren ekimenak eta inbertsio ahaleginak bideratu behar ditu, geure garapena ahalbidetu behar du gure baliabide naturalak, lurraren, uraren, airearen eta basoen zentzuzko erabilpena babesten dituen aldi berean.

(156) Energia aurrezteko eta energia berrigarriak eta garraiabide kolektiboak erabil daitezen eta joan-etorriak murritz daitezen politikak ezarri behar dira eta, azken batean, Euskal Herriak Europako eta munduko herriekin gure baliabideen defentsatik eta zentzuzko erabilpenetik harremanak izan ahal ditzan, eta elikaduraz burujabe izan gaitezen sustatzeko.

(157) Guk planteatzen duguna bezalako garapen jasangarriko eredua artikulatzeko jendarteak eta langileek aktiboki parte hartu behar dute. Ez dago ekonomia, energia edo azpiegituren politikaren oinarrizko erabakiak jendartea alboratuta, edo askotan jendartearen beharren kontra ere, edo okerrago, finantza eta nazioaz haragoko korporazioen interesen arabera har daitezen onartzerik. Jendarteak erabakiak hartzea ez da aldioro botoa ematera mugatu behar. Erakunde sindikalek partaidetza eta erabakiak hartzeko bideak eduki behar dituzte, eta partaidetzazko demokrazia garatzen lagunduko duten herri berrespenerako sistema desberdinak artikulatu behar dira.

(158) Garapen jasangarriaren eredua kontsumo jasangarriaren eredura, gure produktuen sustapenera eta, hondakinak erraustearen izatezko alternatiba modura, erabili eta botatzeko materia organikoa birziklatu eta ontziak berrerabiltzeko politiketara lotuta dago, berez.

2.4.9. Komunikabideak

(159) Komunikazioaren munduak bilakaera sozialean duen izaera estrategikoak Euskal Herria euskal komunikazio esparru bat gorpuzteko beharraren aurrean jartzen du, non komunikabide publikoek eta ekimen sozialekoek alderik esanguratsuena izan behar duten.

(160) Informazio egiazko eta objektiboa jasotzea pertsona guztien eskubidea da eta, halatan, bitarteko publikoek eta adierazpen askatasunaren aldeko politika publikoek eskubide hori bermatu behar dute.

(161) Informazioa lehengai bilakatu da botereari eusteko, interes ekonomiko eta politikoen zerbitzura jarritako komunikazio politiken bidez, eta informazioaren manipulazioa pentsamendu bakarra moldatzeko baliabide ikaragarri bihurtzen ari da.

(162) Euskal Herrian komunikabide publikoak eta ekimen sozialekoak, pertsonak komunikazio estrategietatik abiarazitako erasoetatik babesteko gai diren politika publikoak eta bitartekoak edukitzea, beraz, halabeharrezko premia bihurtzen ari da. Horren haritik, behatoki sozial bat sortu behar dela uste dugu, herritarrak informazio egiazko eta objektiboa jasotzeko duen eskubidearen aurkako informazio politiken jarraipena egin eta salatzeko.

3.- Langileria eta sindikalismoa Euskal Herrian

3.1. Euskal langileriaren egoera.

3.1.1. Egoeraren koadroa edo sindikatuaren interbentzio eremua.

3.1.1.1. Neoliberalismoa eta industria berregituraketa

(163) 80. hamarkadaren hasieratik nagusitutako neoliberalismoak bere jarrerak enplegurako eta gure industria ehunduraraako oihartzun ikaragarria izan zuten industria birmoldaketako politikekin sendotu zituen. Hamarkada hartan egindako birmoldaketa eta pribatizatzeen katearen ostean, zeinen langabeziaren eta urraketa sozialaren mailetako ondorioak izugarriak izan ziren, euskal langileriarentzat ezaugarri berriak izan dituen etapa bat etorri da

(164) Nazioarteko egungo abagunean, enpresa kapitalistek plusbalioak eta mozkinak pilatzeko estrategia diseinatu dute, produkzioaren antolaketa berrian oinarrituz. Lan harremanetan malgutzea eta desarautzea ezarri dute, produkzio unitateak sakabanatu, lan indarra ezabatzen duten teknologia berriak sartu, obra eta zerbitzuak azpikontratatu, industria eremu zaharrak desegin, lanaren antolabide berriak ezarri dituzte.... Lan esplotazio moduetan aldaketak sartuz joan dira, arian-arian.

(165) Euskal industria ehunduraren bilakaeran, multinazionalek eta, bereziki, automobilarekin zerikusia dutenek (Mercedes, Volkswagen, Nissan, Michelin. Firestone...) daukaten garrantzia nabarmendu behar da, une hauetan sektore osagarrietan eragindako ondore eta langile osagairik handieneko industria enpresa eta esplotazio sistema berrien muturreko punta bihurtu baitira.

3.1.1.2. Neoliberalismoa eta langileria

(166) Neoliberalismoak langileria segmentu desberdinetan banatzeak oso eragin handia izan duen Euskal Herrian, eta mesede egin dio esplotazio eta menderatze mekanismo eta errealitate berriak sortzeari.

(167) 1. eranskinean doazkizuen koadroetan politika neoliberalek bultzatutako langileriaren banaketa jasotzen da eta euskal sindikalismoak esku hartzen dueneko eszenatokiaren ikuspegia eskaintzen zaigu.

(168) Produkzio egituraren aldaketa eta industria txikia industria zein zerbitzuetan gehitu izana, eta horrekin batera langileria jasaten ari den zatiketa, sindikalismoaren lana egiteko oztopo handiak dira. Gogoeta horren erreferentzia inolako ordezkaritza sindikalik ez duten milaka enpresak dira. (2. eranskina)

(169) Euskal langileriaren eraketan, Euskal Herrian migrazioaren fluxua egunetik egunera garrantzitsuagoa den aldagai bihurtu da. Enpresaburuak pertsona horien egoeraz baliatzen dira beren mozkinak gehitzeko eta esplotazio mekanismoak prekarietate eta bereizkeria neurriekin areagotzen dituzte. Etorkinek batez ere nekazaritzan, eraikuntzan eta etxeko lanetan (azkeneko hau emakume etorkinek duten aukera bakarra da ia) dituzten lan baldintzak bereziki esanguratsuak dira, esklabutzatik gertu baitaude.

(170) Kapitalismoaren oinarri patriarkala lana sexuaren arabera banatzean datza. Beraz, eredu neoliberalak erreformaz erreforma ezarriz doan lan harremanen berregituraketak ez dio oinarri horri ere aurre egiten. hortaz, lan merkatuan parte hartzeko orduan, emakumezkoak oraindik ere badaude egoera sebsidiarioan, gizonezkoen aldean. Emakume eta gizon langileen aukera eta eskubide berdintasuna guztiz baldintzatuta dago, enplegu eremua -publikoa- historikoki gizonezkoentzat izan delako, familia eta etxe eremua -pribatua- emakumezkoentzat izan den bitartean, eta eremu bi hauek estrukturalki bateraezinak direlako.

(171) Beste alde batetik, aldi bateko lan enpresak (ETTak) azkeneko urteotan patronalarentzat nahi erako prekarietate eta eskulan trafikoa hedatzeko bitarteko garrantzitsua izani dira. Horregatik, prekarietatearen aurkako borrokaren barruan, lan kontratazioaren alorrean, ezinbestekoa da ABLEen aurka erantzuteko eta beren eginkizun maltzurra neutralizatzeko frontea zabalik izatea.

(172) Ildo beretik, azpikontratatzea enpresa handiek asko erabiltzen duten bitarteko bihurtu da. Azpikontratatzea garbiketa, garraio, eraikuntza, mantentze lan eta abarretan eta enpresa handietan produkzio prozesuaren atal batzuetara ere hedatzea produktibitatea gehitzera, kosteak murriztera eta lantoki berean langileak kontratu eta lan egoera desberdin eta aldaezinetan edukitzera bideratzen dira.

(173) Kapitalak garatzen duen desantolaketa eta desegiteko estrategiak, era berean, langile autonomoak edo autonomo faltsuak sortzen ditu. Pertsona hauek enpresei lan jakin batzuetarako lotuta daude, baina erregimen autonomoan funtzionatzen dute, beren burua esplotatzera eramaten dituzten lan baldintzetan. Hau langileria banatu eta esplotatzeko beste modu bat da.

(174) Langileen egoeraren koadroaren aipamen honetan, Euskal Herriaren Hegoaldeko administrazio publikoen jarduera nabarmendu behar da, lan harremanak desantolatu eta desegiteko estrategia neoliberal honi guztiari abal eta babes garrantzitsua eman diotelako. EAJ eta UPNren sektore publikoko kontratazio politikak eta herri lanez arduratzen diren enpresetako lan baldintzak prekarietateaz eta azpikontratez zipriztinduta daude; hau da, ekonomiaren sektore pribatuan administrazio politikoa estrategia neoliberalaren osagarri huts bihurtu da.

(175) Ondoriozta genezake lan malgutasuna eta prekarietatea enpresaburuek langileriaren aurka jotzeko lanabes garrantzitsu bihurtu direla, emakumeak lan merkatuan pairatzen duen bereizkeria areagotzeaz gain. Menderatzeko eta, aldi berean, mozkinak ateratzeko bitartekoa da. Prekarietatea enpleguan egonkortasunik ez izatea da, patronalak soilik kontrolatzen du, langileari mendetasuna sorrarazten dio eta sindikalismoari ekintzarako ahalmena galarazten dio.

(176) Prekarietatearen bilakaerak enpresetan ekintza sindikalaren korporatibizazioa eragin du. Enpresa ertain eta handietan "barruko" korporatibismoa sindikalismoarentzako ziria da eta langileen artean dinamika geldo eta elkartasunik gabeak eragiten ditu. Klase sindikalismoaren aurkako "amarru" hau gure erakundearen erantzun koherentearen ardatz nagusi izan behar da.

3.1.1.3. Lan indarkeria eta lan baldintzak

(177) Prekarietateak eta azpikontratazioak, gainera, istripuak eta lanarekin zerikusia daukaten gaixotasunak eragiten dituzte. Lan istripuen, zein langileok pairatzen ditugun bestelako osasun kalteen inguruko datuek harreman zuzena daukate lan baldintza kaxkarrekin, enpresaburuek segurtasun eta osasunean bat ere ez inbertitzearekin eta administrazio publikoek kontrol, inspekzio eta zigorretan erakusten duten eraginkortasunik ezarekin.

(178) Beraz, enpresaburuaren erantzukizun zuzenaren aurrean gaude, prekarietatea eta azpikontratatzea bere mozkinaren margenak langileon bizia eta segurtasuna arriskuan jartzearen kontura gehitzeko helburu hutsarekin erabiltzen dituztelako.

(179) Lan indarkeria da hori, Euskal Herrian 2003 urtean gutxienez, eta estatistika ofizialen arabera, 150 hildako eta milaka ezgaitasun eta gaixotasun profesional eragin dituena. Orain, indarkeriaz hainbeste hitz egiten den garaian, lan indarkeria horren biktimak, informazio, sindikatuen erantzun, herritarren mobilizazio, politiko eta erakundeen jarduera eta abarrak ere behar dituzte horiek, ordea, ahaztu egiten dira.

3.1.2. Klase gatazkaren bilakaera Euskal Herrian

(180) Lan harremanetan izandako aldaketek enpresaburuen boterea areagotu dute eta langileen aurkako autoritarismoari eta handinahikeriari mesede egin diete. Patronala oso eroso eta babestuta sentitzen da lan harremanak kontratazioaren puntu neuralgikoetan menderatzen eta lan harremana eteten lagatzen dion legediarekin. Alabaina, aurreko puntuan azaldu dugun egoerak langileriari eta sindikalismoari atzerako pausu handia ekarri die enpresaburuekin eta administrazioekin borrokatzeko ahalmenean.

(181) Langileriaren segmentazio edo zatiketa elkartasunik eza eta norberekeria ereitea da, sindikalismoaren eta borrokaren eginkizunean uste ona galtzea dakarrena. Horrek langile geruza asko beren jarrera eta jokamoldeetan burgestu eta esplotazio eta bereizkeria errealitateei bizkarra eman diezaieten ekarri du.

(182) Kapital neoliberalak arbitratutako esplotazio metodo berriek ez dute kontzientzia eta erantzun soziala aragotu. Alderantziz, klase kontzientzia higatu eta indibidualismoa, kontsumismoa, norberekeria, elkartasunik eza bezalako balioak barneratu eta hedatu dira.

(183) Horren haritik, enpresetan ekintza sindikalean oro har ezarriz joan den ideologiaren galera bereziki kezkagarria izan da. Negoziazio kolektiboan errebindikazio dinamika pobretuz da eta enpresetan langileriaren pultsua ezaugarritu behar duten edukiak soldaten negoziazio hutsera eta ezer gutxi gehiagora murriztu dira.

(184) Sindikalismoak ematen duen irudia, batzuetan artifizialki sortua izan bada ere, 80ko hamarkada osoko eredu paktistak osatu egin du zati batean. Honek gazteria klase borrokatik eta borroka sindikaletik aldendu egin du. Hau da, erakunde sindikalak, oro har, ez dira erreferentzia izan lan merkatura sartuz joan diren gazteentzat. Honek eskema indibidualista eta sindikatuen aurkakoa garatu du, langile mugimendua ahultzeko estrategia neoliberalaren mesedetan.

(185) Hala ere, LABen gazteriaren presentzia garrantzitsua da, soslai soziopolitikoko eta enpresetan egunero borrokatu eta erantzuteko konpromisoa duen eredu sindikalaren ondorioz. Gazteriaren sektore horien ekarpena sindikalismo abertzalearen berriztapenaren eta sendotze estrategikoaren bermea da eta, aldi berean, enpresetan klase borrokaren ezaugarriak aldarazteko baldintzak sortuz doa.

(186) Egoera honi erantzuteko, azken urteotan euskal sindikalismoaren ekintza konfederalak aurrerapenak egin ditu enpresaburuen eta administrazio publikoen aurrean, proposamen eta mobilizazioekin. Hala ere, hauek ez dute enpresa edo sektoreetako inplikazioan korrespondentzia koherenterik izan.

3.2. Sindikalismoaren bilakaera Euskal Herrian

3.2.1. Sindikalismo abertzalea

(187) Sindikalismo abertzaleak Euskal Herrian izandako bilakaeran LABeko gizon eta emakumeak eraikiz joan diren klase sindikalismo soziopolitikoaren ereduaren garapena eta hedapena erreferentzia garrantzitsua dira.

(188) Lanaren eta aberastasunaren banaketa, erdu sizal berri baten eraikuntza eta autodeterminazioaren eta burujabetzaren aldeko borroka dira LABek euskal langileriaren mugimenduan garatzen duen aitzindaritza maila garrantzitsuaren ardatzak.

(189) LABek ordezkatzen duen sindikalismo mota honek aurrera egin ezean eta ezker abertzalearen borrokarik ezean, ez liratekeen ELAk bere marko autonomikoaren inguruko bere analisian eta sindikatu ereduaren gainean egin dituen aldaketa sakonak egin ahal izango.

(190) Izan ere, ELA sindikalismo "apolitikoa", hau da, konfederazio ekintza sozio-ekonomikoari bizkar eman eta EAEn patronalarekin eta administrazio publikoekin kudeaketazko sindikalismoa egiteaz defendatzetik (horrek 80. hamarkadan enpresaburuen eta administrazio autonomikoaren aldetik bere ordezkaritzaren bilakaerari babes zuzena emateari mesede egin zion), bere ezaugarriak eta eredua nabarmen aldaraztera igaro da eta, horri esker, LABekin bategiteko espazioak sortzeko baldintza objektiboak ahalbidetu ditu.

(191) ELAk CCOO-UGTrekin hautsi eta LABekin erreferentzia estrategiko batean, hala nola, 1994ko otsailean lan harremanetarako euskal esparruan bat egiteak akordio eta konpromisoen prozesu baten hasiera jarri zuen, eta prozesu hori, fase desberdinak eta krisiak jasan arren, azkeneko hamarkadan Euskal Herriko panorama politiko eta sozialean izandako aldagairik garrantzitsuenetako bat izan da.

(192) 1999ko maiatzeko greba orokorra Hego Euskal Herrian eduki sozio-ekonomikoaz bertoko modura egiten zen lehenengo greba orokorra izan zen, eta sindikalismo abertzaleak zenbaterainoko indarra izan dezakeen agerian utzi zuen, baita ekintzarako batasuna gauzagarria dela eta estatu mailako sindikalismoarengandik banatuta autonomiaduna dela ere.

(193) Alabaina, ELAk urte bereko udazkenean ekintza batasuna hausteak enpresaburuen eta administrazioen aurrean mintzakide izaera edo indarra eta botere espazioak irabazteko joera horretan atzerako pausu garrantzitsua ekarri zuen. LABek ekintza batasuna berreskuratzeko hainbat ahalegin egin zituen arren, ikusmiran zegoen pultsu politikoarekin eta hauteskunde sindikalen prozesuarekin zerikusi handia zeukan ELAren erabaki taktikoaren oztopoaren kontra jo zuten.

(194) Gerora zabaldu zen krisiak sindikalismo abertzalearen errebindikazio eta borrokaren pizkunde hori geldiarazi zuen. Ekintza sindikala, era berean, berez sindikatu eta klase jarreretan benetan aurrera egiteko lanabesa izateko gai ez zen negoziazio kolektiboan zentratu zen.

(195) 2002-2003ko hauteskundeen ostean, ordea, nondik bi erakundeok indartuta irten ginen, ekintza batasuna berreskuratzeak konfederazioko ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa sendotu dituzte berriro eta, era berean, igurikapenak ireki ditu esparru soziopolitikoan. 2003ko otsaileko akordioen abagunezko izaeran oinarrituta, eta zenbait kontraesan eta tentsio gorabehera, guk uste dugu horien garapena eta kudeaketa oro har onak izan direla, gogoetarako eta, bai esparru sindikalean, bai esparru soziopolitikoan, konpromiso sakonago eta etorkizun handiagokoak hartzeko baldintzak ezarri baitituzte.

(196) Dena dela, sindikalismo abertzalearen ordezkaritzaren bilakaera ona izan eta CCOO-UGTrengandik gero eta bereiztuago gauden arren, horrek ez dauka lotura zuzenik enpresetan benetan daukagun indarrarekin, klase konfrontazioari dagokionez gertatu beharko liratekeen aldaketekin. Borroka eta erantzun dinamikak sindikalismo abertzalearengandik soilik irekitzen diren arren, CCOO eta UGT ekintza batasuna patronalarekin baitaukate, garbi dago desoreka dagoela euskal sindikatuen gehiengoaren erreferentzia soziopolitiko eta sozio-ekonomikoaren eta euskal langileriaren egoeraren koadroa aldarazteko duten benetako gaitasun edo indarraren artean.

(197) Euskal Herriaren burujabetza nazional eta sozial prozesuari dagokionez, LAB eta ELAren arteko ekintza batasuna horretan oihartzun eta garrantzi estrategikoa izan lezakeen sindikatuen bateratzearen oinarria izan da eta oraindik ere bada. ELA, LAB, EHNE, ELB, ESK, STEE eta HIRUk ordezkatzen duten eremu sindikala (160.000 langile afiliatu baino gehiagorekin), burujabetza eta aldaketa sozialeko estrategiarako kopuru eta izaeraz giltzarria den faktore bilakatu da.

(198) Azkenik, sindikalismo abertzaleak mugimendu sozialekin globalizazioaren aurkako dinamika neoliberaletan ez eze, berariazko gai ekonomiko eta sozialen inguruan ere sakondu du elkarlana (AHT, soldata soziala, eta abar). "Aliantza" horrek nabarmen egin du aurrera Euskal Herriko Gizarte Foroa eratzearekin.

3.2.2. Espainiar eta Frantses estatuetako sindikalismoa

(199) Espainiar estatuko sindikalismoa PP eta PSOEren arteko "terrorismoaren aurkako" itunaren ezaugarri berberak dituzten parametroetan kokatzen da, hau da, Euskal Herriak autodeterminazio eskubidearen errebindikazio demokratiko zilegiaren aurka. Jarrera politiko hori da lan harremanetarako euskal esparruaren aurkako bere jarreraren ezaugarria eta lan harreman horiei dagokienez beren "neozentralismoa" bultzatzen duena (Forcem, negoziazio kolektiboa...). Hego Euskal Herrian CCOOn izan diren aldaketek ez dute estatu egiturari buruz duten jarrera politiko eta sindikal subsidiarioa aldarazi.

(200) CCOO eta UGTk kudeaketa eta itun sozialeko sindikalismo eredua ordezkatzen dute indarreko marko edo sistema ekonomiko eta sozialari laguntzeko eta aldaketa politiko eta sozialerako inolako konpromisorik gabe. Klase jarreretan aurrera egiteko sindikatu taktika eta estrategia kontsekuenterik gabeko koadro sindikalen enpresa handi bilakatu dira. Komunikabideetako berbaldi ugari eta erakundeetako presentzia handiaren atzean sistema ekonomikoaren kontraesanak leuntzeko besterik ez daudela ezkutatzen dute.

(201) Gauza bera esan dezakegu Frantses estatuko sindikatu handiei dagokienez. CFDTk erreforma neoliberalei beharrezko irizten die eta haien alde jarri da. CGTk, bere aldetik, erreforma errefusatze duen arren, ez dago gobernuaren politika neoliberalari gogor aurre egiteko prest ere. CGTk CFDTrekin, neurri neoliberalen aurka egiteko baina gobernuarekin konfrontazio gogorra izatera heldu barik, batera jotzeko egin dituen ahaleginak, zapuztuta geratu ziren CFDTk pentsioen erreformari emandako babesarekin. Aldi berean, CGTk ez dago greba orokorraren alde, alderdi sozialista eta alderdi komunista frantsesen ahuleziak baldintzatuta.

(202) Frantses estatuko sindikalismoak, Euskal Herriari dagokionez, CCOO eta UGTk Espainiar estatuan dauzkan jarrera berberak dauzka. Erakutsitako etsaitasunak eta Ipar Euskal Herrian LAB eratzeko jarritako oztopoek argi eta garbi adierazten dute beren politika sindikala eta euskal langileek beren antolamendu esparru propioa izan dezaten aurka daudela.

(203) Harreman onak dauzkagu CGT-education, SUD-education, SUD-PTT eta CNTrekin ekintza sindikalaren eta jendartearen aurkako erreformen kontrako borrokaren gainean ikuspegi askotan bat gatoz-eta. Gure helburua harreman horiei eutsi eta ekimen sindikaletarako eta baterako mobilizazioetarako akordioak iristeko urratsak egitea da.

(204) LAB Ipar Euskal Herriko eszenatokira agertzeak zenbait sindikatu frantses nolabait "abertzaletzea" eragin du, eta orain ikurrina, euskara, presoen egoera, erakundeen beharra eta halakoetan sentiberago azaltzen dira. Horrek, epe laburrera, barruan gehituz joango diren kontraesanak sortuko ditu eta kontraesan horiek, aldi berean, Ipar Euskal Herriko langileriaren artean LABen berbaldia eta estrategia zilegitu behar dute.

4.- Gure ekintza sindikalaren ikuspegi kritikoa

4.1. Ibilbide laburra

(205) LABen ekintza sindikala, azkeneko urteotan, langileriaren gaineko esplotazio eta menderatzeko metodoetan aldaketak izan direneko (arestian esan ditugun ondoreekin), eta enpresaburuek mozkinak pilatu dituzteneko zikloaren testuinguruan garatu da.

(206) Aurka egiteko gaitasuna berreskuratzeko prozesua 4. Biltzarraren oinarrizko erreferentzia izan zen. Horri esker, konfederazio dinamika garrantzitsua ireki ahal izan zen eta mobilizazio eta borroka ideologikorako mekanika berriak bultzatu ahal izan ziren.

(207) Alabaina, konfederazioaren berbaldiaren eta jende xehearen mailako jardueraren arteko banaketa 4. Biltzarraren erreferentziak baliorik gabe utziz joan da, eta eredu sindikala, edo klase sindikatu modura langileria jasaten ari den esplotazio egoera berriek eskatzen dituzten konfrontazio koordenadetara egokitzeko gure gaitasuna pixkana higatuz joan dira.

(208) Horren ondorioz, azkeneko hiru urteotan konfrontaziozko eredu sindikalaren gaineko berbaldi teorikoaren eta etsipen eta nolabaiteko kritikarik ezeko klabeetako joerak tokia irabaziz doazeneko praktikaren arteko banaketa horretan sakondu izan da. Horrekin batera, 2002ko udazkenetik aurrera izandako hauteskunde sindikalek egoera horri erantzuteko jada beharrezko irizten zitzaion gogoetari ekitea zaildu zuten.

(209) Beraz, Biltzar honek sindikatuaren eta antolamenduaren ereduaren gaineko gogoeta bultzatu behar du, Lesakako Nazio Batasunean 80. hamarkadan euskal langileriak bizi zuen egoeran erabakigarria izan zen industria birmoldaketako prozesuen inguruan finkatu ziren ebazpenen antzeko eraginekoa, hain zuzen. Orain, gaurko aldagai soziopolitikoen eta lan aldagaien arabera, LABek bere nortasun ikurrak sendotu behar ditu eredu sindikalean, bere proiektu estrategikoa tinkotuz. Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoan txertatutako klase sindikalismo soziopolitikoaren eduki, forma eta dinamiken inguruko gogoetarako une egokia dugu oraingoa.

4.2. Ekintza sindikaleko ahulduraren ezaugarriak

(210) Sindikatuak eragile sozial modura kanpoko erreferentzia irabazi arren, eta komunikabideetan garrantzia hartzen joan den arren, esku hartzeko bere espazioan barruko erreferentzia higatuz joan da. Konfederazio, sektore eta enpresa mailako dinamiken arteko harremanik eza hedatuz joan da. Desoreka hori agerian dago, normalean erakunde osoan ageri ez arren, eta militante asko eta askok ahalegin handiak eginda ere. Hala ere, gure ekintza sindikaleko desantolaketa edo desegitea nolabaiteko naturaltasun eta etsipenez barneratu da.

(211) Gure ekintza sindikalaren ideologia galerak eta egoerara eta kontzientziatze mailetara moldatzeko joerak sindikatuko militantziak klase borrokak hartu behar duen abangoardia betekizuna baldintzatzen du. Askotan alor politikoan muturrekoak eta ezkerre-

koak diren jarrerak ez dira ekintza sindikal koherentearekin batera joaten. Era berean, garbi dago ezkerreko sektore politiko eta sozialetan batetik besterako joan-etorria oso hedatuta dagoela.

(212) Gogoeta eta esku hartzean hutsunea izan da LABen ekarpen soziopolitikoaren alderik erabakigarrienean, eredu sozio-ekonomikoan, alegia. Alabaina, agerikoak dira azkeneko hiletan defizit hori gainditzeko egiten ari diren ahaleginak: AHT, Gizarte Foroa, Kutxen Legea, osasun politika, arrantzu politika, Unibertsitateen Legea, eta abar.

(213) Gure ekintza sindikaleko defizit horrek kaletik desager gaitezen edo eredu sozialari dagokionez gure erreferentzia ahul dadin ere eragiten du. Hau da, enpresetan bagaude, baina badirudi ez daukagula jendarte osoari aurkezteko eredu sozialeko proiekturik (osasun eredua, zerga politiken aurreko jarrera, etxebizitza politika, azpiegiturak, eta abar).

(214) Bestalde, sindikatuaren egiturek eskaerako sindikalismoan funtzionatu dute, eta ez eskaintzako sindikalismoan. Hau da, arazoak sindikatuaren egoitzetara hel daitezen zain egoten gara, eta ez dugu dauden esplotazio errealitate berriei erantzuteko eta erasoko ekintza sindikalik planifikatzen.

(215) Negoziazio kolektiboa ere bilakaera horretaz guztiak kutsatu da. Ordezkaritzan eta esku hartzeko gaitasunean hazi egin gara baina erabat kartarako dinamika, hitzarmen edo konbenio kolektiboen indarraldi eta edukiei dagokienez oso anarkikoa ezarriz joan zaigu. Urtero-urtero, negoziazio kolektiborako orientazioak sektore edo enpresa bakoitzean zuhurtziaren arabera erabiltzen diren erreferentzia bihurtzen dira, eta konfederazio egituratik jarduerak birbideratzeko zailtasunak izaten dira.

4.3. Zergatiak

(216) Ez dago aipatu ditugun ondore horien zergatia azaltzen duen zio puntualik, berrelikatzen diren mota desberdinetako hainbat gai baizik.

(217) Neoliberalismoak eragina izan du klase borrokan eta gizarte ereduari, klase alternatibari eta enpresaburuekin boterearen lehian ekiteari dagokienez ideologiaz hustea ekarri du. Horren ondorioz, klase erakundeak ere neoliberalismoz kutsatu dira, are gehiago beharrezko berregokitze ideologikorik jorratzen ez bada. Horrek LABengan ere eragina dauka, oharkabean ekintza sindikala aktibatzearen inguruan geratuz doan barruko abangoardiarengan (koadro eta liberatuak), eta beren jarduera eskaerari erantzuten dion sindikalismora, defentsiban ari den sindikalismora, klase borrokan jauziak egiteko gai ez den sindikalismora murriztuz doaz.

(218) 5. Biltzarrak, kanpoko eta barruko egoera konplexu eta zaila tarteko, ezin izan zuen 4. Biltzarrean planteatu eta garatu ziren ekintza sindikaleko eta antolaketa ereduko ildoak sakondu eta bultzatu.

(219) Bestalde, erakundearen kopuruzko igoera ere kontuan hartu beharreko aldagaia da egitura arin eta politika eta gizartearen arlotik ondo hornitutakoetan txertatzeko gai ez bagara. Horren haritik, 5. Biltzarreko antolakuntza ereduak (ez paper gainean, ariketaren aldetik baizik) ez du sindikatuaren egiturak gure ekintza sindikalaren eta esku hartze soziopolitikoaren eredura egokitzerik lortu. Aitzitik, espezializazio gaizki ulertua eta nolabaiteko korpo-

ratibizazioa eginkizunetan kontuan hartzekoa da, LABen klasikoa den erabateko militantziaren kontzeptua hondatu baitu. Halaber, sindikatuan hierarkizazio eta funtzionamendu bertikalak handiagoak direla ohartzen gara, kezkatuta.

4.4. Ondorioak.

(220) Erakundeak bere burua aztertu eta behar dituen sendabide egokiak ezartzeko gai izan behar du. Autokritika eta bere burua ederresteari ihes egitea giltzarriak dira edozein erakunde iraultzaile eta klase erakunderen proiektuaren garapenean. Ez gaitu beldurtu behar, erantzukizun kolektiboko ariketa eta proiektuaren osasun onaren froga izan baizik.

(221) Biltzar honek inflexio puntua izan behar du LABen sindikatu eta erakunde ereduaren berriztapenean, sindikatu abertzale, independentista eta klaseko modura egokiro proiektatzeko euskal langileriaren baitan. Era berean, euskal prozesu politikoan eragile sozial garrantzitsua izaten jarraitu behar du.

Ponentzia polítiko sindikala

40

5. Gure eredu sindikala bultzatzen

5.1.- Bi eredu, erreferentzia bakarra LABentzat.

(222) Sindikalismoa bi eredu handitan bereiztuta dago: kontu politikokin zerikusirik ez daukan sindikalismo "independentearen" eredua, ideologiaz hustua eredu sozio-ekonomikoari dagokionez, eta ekintza sindikalera soilik bideratua, eta antolaketaren aldetik autonomiaduna den eredu sindikala, eguneroko klase konfrontazioa langileen mesederako alternatiba politiko eta sozialeko estrategia baten barruan planteatzen duena.

(223) Kudeaketako sindikalismoa, borroka egin eta aldarazpen alternatiba eraikitzeko gai ez dena, sistema ekonomiko kapitalistaren makillatzaile bihurtzen da. Europar teknokrazia sindikalaren garapena (EGBren egituran txertatua) nolabaiteko sindikalismo itun zale eta etsia bultzatzen ari da. Eredu ekonomiko neoliberalaren laguntzaile den sindikalismoak, azkenean, bizirautea bera helburu modura hartzen du.

(224) Eredu horrentzako alternatibak sistemak planteatzen dituen eraso eta baldintzei etengabe berregokitzen eta aktibatzen egon behar du. Aldi berean, errebindikazio eta borroka izaerari eutsi behar dio, eta klase erakunde, lantokietan boterearengatik lehiatzen den eta egoera ekonomiko eta politikoari aurre egiten dion erakunde modura ezaugarritzen duten edukiak berriztatu behar ditu.

(225) LABen eredu sindikalaren erreferentziarik ezaugarrizkoena klase erakundea dela da. Klase sindikalismoaz hitz egitea konfrontazio sindikalismoaz hitz egitea da, eta kapitalarekin aberastasunaren banaketan, lan harremanetan eta lanaren antolamenduan boterearengatik lehian aritzea. Boterearengatik lehiatze hori lantokietan ere egin behar da.

(226) Beste alde batetik, LAB sindikatu soziopolitikoa izatea, burujabetzako politika eta alternatiba sozial proiektu baten barruan egonik, horrek ematen dio, azken batean, enpresan edo sektorean, "jende xehearen mailan" garatzen dugun ekintza sindikalaren bidez gauzatzen dugun geure jarduera sindikalari zentzua eta orokortasuna.

(227) Honi loturik, ekintza sindikala etengabe oxigenatu behar da klase kontzientzia sakontzera eta aldaketa politiko eta sozialeko prozesuaren garapen egokirako baldintza objektibo eta subjektiboak sortzera jo dezan barruko eta kanpoko borroka ideologikoaz.

5.2. Langile klasearen berrosaketa, gure ekintza sindikal ereduaren oinarria

(228) LABen ekintza sindikalaren ereduak langileriaren berrosatzean erreferentzia giltzarria izan behar du.

(229) Langileriaren banaketak, errebindikaziozko korporatibismoak ezartzeak larriki baldintzatzen du klase eta konfrontazio sindikalismoa, LABen ekintza sindikala bideratuko duen klase batasuna erreferente izateko xedean.

(230) Ezin dugu zatiketa hori on eta aldagaitz modura hartu. Aitzitik, gure ahalegin guztiak sistema kapitalistak sortutako errealitate horien artikulaziora eta errebindikaziozko elkarlo-turara bideratu behar ditugu,.dinamika estankoak eta sarritan klase jarrera ahultzen duten interes konfrontazioak saihestuz.

5.3. Konfrontazio sindikalismoa -kapitalari boterea borrokatzen diona– aldaketa sozialerako eragilea

5.3.1. Gogoeta orokorrak

(231) Klase-sindikatua izatea ez da betirako definizio edo labela, aitzitik, kapital eta lanaren arteko konfrontazioaren ezaugarriak aldatu heinean, etengabe egokituz joan beharra dago.

(232) Klase-sindikalismoaren, hau da, boterea borrokatzen duen eta aldaketarako bitartekoa den sindikalismoaren ezaugarria jendarte eredu alternatiboaren aldeko konpromisoa da eta, honekin batera, aldaketa politiko eta sozialak bideratu behar ditu, langileria eredu alternatibo honetara bultzatzeko.

(233) Halako eredu sindikal batek abagunezko eskemak egitea saihestu eta errebindikazio eta borroka erreferentziei eutsi behar die. LABen erreferentzia horiek koherentzia eta disziplinaz bermatu behar dira, ez da erreferentzia erreferentziarengatik besterik gabe, edo erradikalismoa erradikalismoarengatik besterik gabe, gure ekintza sindikalaren kontzientzia da, posibilismoaren magal samurrean sartzeko prest ez dagoena.

(234) Enpresa, sektore zein multinazionalaren egoera zein den benetan ezagutzea datu giltzarria da klase konfrontazioa edo boterearengatik lehiatzea dagokion tokian eta neurrian kokatzeko, eta langileek kontzientzia har dezaten ahalbidetzeko. Negoziatzeko errutinak eta errebindikazioak pobretzeak kudeaketa sindikalismotik gertu dagoen eredura eramaten du, ezinbestean.

(235) Errebindikaziozko sindikalismoak benetako dimentsioa eman behar dio borrokaren balioari, eta enpresa bakoitzean mobilizazio ahalmena galtzearen eta porrotaren aurreko urratsa diren etsipen eta pragmatismoz beteriko inertziak saihestu behar ditu. "Borroka bat gal daiteke, baina borrokatzen ez bazara jada galdu duzu"

5.3.2. Boterearengatik lehiatzeko espazioak

5.3.2.1. Lan errentaren gaineko lehia

(236) Lanak sortzen duen errenta eta plusbalioa ondo banatzeko borroka jarrera sindikala zehazten duen funtsezko errebindikazio oinarria da.

(237) Botere publikoek aberastasuna banatzeko neurri ekonomiko eta sozialak bultzatzea da kapitalarekin errentaren lehian aritzearen berezko ardatza. Oinarrizko errenta, zerbitzu sozial publikoen garapena, zerga politika progresiboen aldeko borroka, edo kapitalaren espekulazio mugimenduarengatik tasak ezartzea ("Tobin tasa"), eta abar, errentaren lehia horretan eta alternatiba sozial aurrerakoia moldatzean sartu beharreko errebindikazioak dira.

(238) Enpresaren barruan bere egoera zehatz-mehatz ezagutu behar da, soldata igoera deneko IPKren mendeko aldagaia izan ez dadin. Soldata igoerak IPKn erreferente bat izan behar du, bai, baina, bereziki, lanaren emaitzak ondo banatzean oinarritu behar du.

(239) Errentaren lehian, soldata bereizkerien aurkako borroka errebindikazioaren digitua bera bezain garrantzitsua da. Enpresa bakoitzean soldaten abanikoa murrizteko politikak edo halakoak zuzentzeko sistemak jorratzen ez baditugu (soldata gordinaren gaineko igoera), desberdintasunak ikaragarri igotzen dira eta korporatibismoa eta elkartasunik eza elikatzen dira.

(240) Lanaldia laburtzearen aldeko borroka, berez, enpresaburuarekin errentarengatik lehiatzea da. Lanaldia murrizteak, soldatari ukitu gabe eta murrizketa arinduko duen malgutasunik gabe, enpleguari mesede egiten dio eta, hartara, aberastasuna hobeto banatzea dakar. Aitzitik, lanaldiaren murrizketaren "truke" malgutasuna edo aparteko orduak sartzeak patronalak sakelaratzen duen produktibitatearen igoerari besterik ez dio onik egiten.

(241) Bazterkeria, lan bereizkeria eta bereizkeria profesionala, soldata, kontratazio eta lan baldintzetako desberdintasunak, baita emakume langileek pairatzen duten lanaldi bikoitza ere, gure analisi eta interbentzio sindikalaren konstanteak izan behar dira, horrela besterik ez baikara euskal langileria osoarentzako alternatiba izango.

(242) Lan istripuen aurka borrokatzea, edo enpresetan lan osasunari benetako eta izatezko dimentsioa ematea enpresaburuarekin errentarengatik lehiatzeko beste modu bat da. Enpresaburuei segurtasunean eta prestakuntzan inberti dezaten eskatu behar diegu, kontratazio mota egonkorrak egin ditzaten, eta abar, eta horrek, jakina, beren errenta edo produktibitate mailan eragina dauka. Hori bai, lan osasuna utziezina den eta salgai ez dagoen helburu modura planteatu behar da. Absentismoa murriztearen baldintzapeko soldata igoerak errotik ezetsi behar ditu LABek.

5.3.2.2. Lan harremanak. Enplegua

(243) Neurri neoliberalek enpresaburuei jendea kontratatu eta kaleratzeko erabateko botere a eman diete. Langileen defentsarik ezeko egoera dakarten kontratazio prekarioak sustatzeko lan legedia modu arbitrario eta iruzurtian erabiltzeak klase sindikalismoaren aldetik erantzun mekanismo zehatzak eskatzen ditu. Ezin da kontratazioa enpresaburuaren eskumen esklusibo modura hartu, eta prekarietatearen aurkako borrokan erreferentzia nagusia ez duen errebindikazio sistemarik sartu. Arrazoiak argi daude, prekarietatea esplotazioa da, eta langileen erantzuna desartikulatzen du langile kolektibo desberdinak bereizten dituenean: finkoak, aldi batekoak, azpikontratatuak, eta abar.

(244) Legedia aldatzea erreferente argi eta garbia da prekarietatearen aurkako borrokan edo lan harremanetan suertatzen den botere-borrokan. gure kasuan, aldarrikatzen dugun LHEE, legeak aldatzeko esparru propioari dago loturik. hori bai, kontu hau ezin da aitzakia izan prekarietate modu guztiei ez erantzuteko, enpresaz enpresa, sektorez sektore.

(245) Enpresaburuak lan harremanak agindu eta ezartzeko daukan nahierako ahalmen horren aurkako borroka honek ekintza sindikalaren ereduan aldaketak egitea eskatzen digu, ezin baitugu langile finkoen lan baldintzekin zerikusia daukaten eduki klasikoen negoziazio kolektiboaren errutinarekin segitu. Negoziazio kolektiboaren eduki nagusietan prekarietaterik ez egotea edo prekarietateari jaramonik ez egitea gainditu behar da.

(246) Plantillak murrizteko espedienteek, edo aldi baterako kontratazioa arbitrarioki mozteko neurri gogorrek LABen aldetik erantzun sendoa jaso behar dute. Ezin dugu enplegua galtzea edo lan eta soldata baldintzek okerrera egitea onartu, enpresen emaitzen kontuak loditzeko mekanismo modura. Gaur, lan agintaritzaren onespenarekin, erregulazio espedienteak produkzioaren antolaketaren beste bitarteko bat bihurtu dira.

(247) Enpresetan stockak ezabatzeak eta eskarien zerrendaren arabera funtzionatzeak espedienteak produkzioaren antolaketako beste neurri bat baliran erabiltzeko joera hori bultzatzen dute. Gobernatzaile batzuek erabiltzen dituzten terminologia politiko eta militarren antzekoak diren badaezpadako espedienteen argudioak ikusten ari gara.

(248) Enpresetan 60 urterekin erretiratzeko eta aurre-erretiroetarako politikak egiteko errebindikazioa enplegu politikan beti gogoan dagoen erreferentea da. Erretiratzeko adinean malgutasuna izatera eta aurre-erretiroak akabatzeko estrategiara begira dauden joeren aurrean (Estatu frantseseko erreformak eta Toledoko Ituneko erreformak), sindikatuak txandako kontratua edo antzeko neurriak garatu behar ditu, gazteak lan merkatura sar daitezen errazteko eta, aldi berean, erretiro duina ahalbidetzeko.

5.3.2.3. Lan denboraren berrantolaketa

(249) Lan denboraren berrantolaketa, lan malgutasuna deritzonarekin lotuta, enpresen produktibitate eta mozkinak enpleguaren eta lan baldintzen kontura gehitzeko beste tresna bat da. 4 edo 5 txanda ezartzea, "orduen burtsak", denbora prestutasuna, denbora ez-osoko kontratuak, eta abar, produktibitateari lotutako malgutasun sistemak dira, enplegua sortzearen eta lan baldintzak hobetzearen aurka doazenak.

(250) Sistema hauek, batzuetan, langile sektore zehatz batentzat sari bereziak ematearekin lotuta egoten dira. Horrela, talde batentzat berariazko estatusa sortzen da eta horrek barruko banaketari mesede egiten dio. Era berean, plantilla gehitzen deneko kasuak ere badira, baina malgutasun goreneko baldintza horietan lan egiteko soilik. Hori, jakina, enpresaren barruan beste haustura bat eragitea da.

(251) LABek lana berrantolatzeko sistema hauen aurka borrokatu behar du. Ezin dugu, esaterako, lanaldia malgutasunaren truke murrizterik negoziatu, lehen esan dugunez. Enpresaburuaren aldetik benetako amarrua da, eta inozokeria sindikala, 35 orduak malgutasunaren truke ezar daitezen lortzea, horrek ez baitakar inolako enplegurik sortzerik eta bai, ordea, produktibitate handiagoa.

(252) Aparteko orduen aurkako borroka ere ezinbestekoa da lanaldia murriztu eta antolatzeko. Prekarietateari tinkotasunez erantzutea (kalitatezko enpleguaren alde lan egitea) aparteko orduak amai daitezen lanarekin osatu behar da, sarritan kontratu edo soldata baldintza prekarioek sortzen duten premiarengatik egiten dira-eta.

5.4. Benetako kontra-botereko ekintza sindikala aldaketa politiko eta sozialerako

(253) LABen eredu sindikalaren kontra-botere filosofia bere izaera soziopolitikoak zehazten du.

(254) Antolaketarako autonomiatik, mugimendu sindikala Euskal Herrian askapen nazional eta sozialerako prozesuan bloke abertzale eta klasekoa eratzeko erabakigarria da. Sindikalismotik bideratutako kontra-botereko estrategia batek maila politiko eta sozialean, kapitalaren eta herri klaseen arteko indar korrelazioan aldaketa egin ahal izateko, behar diren aliantza taktikoen izaera eta edukiak aztertu behar ditu. Autonomiarik galdu gabe beti eta, jakina, sindikalismoaren kontra-boterearen izaera bera baldintza dezaten txeke zuririk gabe.

(255) Klase batasunak lehenengo froga lantoki bakoitzaren eremuan dauka. Ezin dugu "klase batasuneko" berbaldi orokorrik egin enpresa edo lantoki beraren eremuan batasun horri zentzurik emateko gai ez bagara.

(256) Gure oinarrizko ekintza sindikalak lantokiko langile guztien borroka berean artikulatu behar du, eta kontratazio mota desberdinek eragiten duten banaketa gainditu behar du. Langile afiliatuen partaidetzak erreferente etengabea izan behar du eta horretarako komunikazio mekanismo egokiak ezarri behar dira.

(257) Lantokietako errebindikazio dinamika motelduz joan da, eta LABek argi erantzun behar dio horri. Oinarrizko norabide horretatik sortuz joaten diren arazo operatiboak gainditz joango gara eta, era berean, pixkana, lantokietan harremanak, elkartasuna eta errebindikazioetako batasuna sendotuko ditugu.

(258) Gure ekintza sindikalerako errebindikatzen dugun kontra-botereko estrategia hau negoziazio kolektiboan, gure interbentzio sindikalaren beste kontu batzuei aurre egitean zein jarraian esango ditugun beste kontu batzuetan bultzatzen ditugun dinamiken barruan egon behar da.

5.4.1. Negoziazio kolektiboa.

5.4.1.1. Gogoeta orokorrak

(259) Negoziazio kolektiboa gure ekintza sindikalaren bitarteko nagusia da. Izan ere, biltzar honetan aldarrikatzen ari garen edukien eta lan eta borroka mekanismoen berriztapena, hein handian, negoziazio kolektiboaren ingurukoa da.

(260) Euskal langileen lan baldintzen arautzaile izanik, negoziazio kolektiboa bitarteko nagusia da lan harremanetarako euskal esparrua eratzeko.

(261) Negoziazio kolektiboan enpresaburuen eta langileriaren arteko lan harremanetan errenta eta boterearen lehian dagoen indar korrelazioa kontrastatzen da. Hala ere, ekintza sindikala ez da enpresa edo lantoki barruko indar neurketa horretan xurgatu edo sakabanatuta geratzen, baizik eta palanka modura funtzionatzen du, bere edukiek kontratazioari, lan osasunari, euskalduntzeari, aukera berdintasunen politikari, eta abarrei buruz kontrol sindikalaren dinamika bultzatzen baitute. Horrek bizirik mantentzen du klase pultsua enpresetan.

(262) Egin beharreko negoziazio kolektiboak nolakoa izan behar duen ikuspegia izateko, ezinbestekoa da hainbat aldagai ezagutzea:

- Sektoreko enpresa egitura
- Enpresa edo sektoreko emaitza ekonomikoak
- Patronalaren ezaugarriak
- Datu soziolaboralak (prekarietatea, azpikontratazioa, genero bereizkeria, lan malgutasuna eta antolaketa, aparteko orduak, soldata egoerak, segurtasuna eta lan osasuna)
- Sektore edo enpresako euskalduntze prozesua

(263) Datu hauen tratamenduak plataforma baten edukian eta sail sindikal edo sektore egitura bakoitzetik negoziatzeko estrategia baten ezarpenean eragin behar du. Lehenengo urrats hau ezin daiteke enpresa edo sektoreko esparruan negoziazio kolektiboaren ardura daukatenengana mugatu, baizik eta sail sindikalean edo sindikaletan ondo landu eta plantilla osora hedatu behar da. Hau da, funtsezkoa da negoziazioak hasieratik oinarri sendoa izan dezan eta, aldi berean, langile guztiak hastera doan pultsu edo konfrontazioarekin sintonian egon daitezen.

5.4.1.2. Negoziazio eremuak – antolaketa eta indarraldiak

(264) Une honetan, Hego Euskal Herrian langileen %18 estatu mailako itunen araupean daude. Horrek negoziazio kolektibo ia guztia hartzen du Ipar Euskal Herriaren kasuan. Negoziazioko estatu mailako esparru horiek, gainera, txarrak dira langileentzat, dituzten ezaugarri burokratiko eta partaidetzarik gabekoengatik.

(265) Negoziazioko estatu mailako esparru hori lan harremanetarako euskal esparrura ekarri behar da. Lan ildo desberdinak egon daitezke hori egiteko, eta LABek horietan sakondu eta baloratu beharko ditu. Era berean, sektoreen arteko akordioak egitea egokia den ere aztertu beharko da, estatuko uniformismo eta ezarpenei erantzuteko.

(266) Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan LABek negoziazioko eta ekintza sindikaleko eremuak enpresaz enpresa irabazi behar ditu, frantses estatuko administrazioak eta sindikalismoak ezartzen dizkigun egiturazko baldintzak gainditzen dituen aldi berean.

(267) Bestalde, azkeneko urteotako gehiegizko atomizazioaren aurrean, egun dauden negoziazio esparruen gaineko gogoeta egin behar dugu. Lantoki ugaritan sakabanatuta dauden langile kopuru txikiak biltzen dituzten talde hitzarmen edo konbenio kolektiboak egoteak jarrera sindikala ahultzen dute, eta ikaragarri baldintzatutako negoziazio dinamikan sartzen gaitu. Gure ustez, jarduerak eta negoziazio esparruak berrantolatzea ezinbestekoa da.

(268) Negoziazio kolektiboaren esparruen antolaketa LABen etengabeko erreferentzia izan da, eta hala izaten jarraituko du. LABek, sektoreko langileen guztiei aplikatzen zaizkielako, hitzarmen sektorialei ematen dien garrantzitik, uste dugu ezin dela inongo negoziazio esparrurik sakralizatu, baizik eta unean-unean langileriaren interesen borroka eta defentsarako eremurik egokiena baloratu.

(269) Negoziazio esparruak modu eragingarrian antolatzeko, talde hitzarmenen indarraldiak bai enpresan bai sektorean berdinak edo antzekoak izan behar dira. Bestela, borrokaren esparru sektoriala eta, horrekin, enpresa txiki eta ertaineko langileen interesei erantzuteko gure aurkakotasun ahalmena ere ahultzen ariko ginateke.

(270) Indarraldien berdintze hori konbentzimendu eta diziplina osoz barneratu behar dugu. Ezin dira enpresa batean "onak" izan daitezkeen akordioak sinatu, sektoreko pultsu orokorra ahultzearen kontura. Era berean, ezin dugu esparru sektorial batean sindikatuaren interbentzio ildoari erantzuten ez dioten zenbait eduki eta dinamikatara moldatu.

(271) Hitzarmenen indarraldiari dagokionez, LABek urtebetekoak edo, gehienez, bi urtekoak izan daitezen defendatzen segituko du, eta indarraldi luzeagorik ezetsiko du, erabat. Edozein salbuespen egitekotan, dagokien sektore eta konfederazio mailako egiturek baloratu beharko dute.

5.4.1.3. Edukiak

(272) Lan harremanetan errenta eta boterearengatik lehiatzeko lanaldi eta soldatetara mugatzea baino errebindikazio handinahitsuagoa egin behar da. 6.3.2. atalean jada ezarri ditugun erreferentziak negoziazio kolektiboaren edukietan kokatu behar dira.

(273) Enplegu-prekarietate ardatzak arian-arian joan behar da negoziazio kolektiboa markatuz. Honetarako, enpresa edo sektorearen egoera ekonomikoa eta laborala benetan ezagutzeak edukin zehatzak planteatzen lagunduko digu. Hitzarmen batean prekarietatearen aurkako erantzun progresibo eta neurgarririk egon ezean, LABek hitzarmen hori sinatzea egokia ote den hausnartu behar du. hau da, prekarietatearen eta soldata diskriminazioen aurkako borrokaren inguruan erreferentzia argia markatu behar dugu; bestela, negoziazio kolektiboa langile multzo bakar baten baldintzak hobetzea baino ez da izango.

(274) Horren harira, sindikatuak sendo eta tinko jokatu behar du soldata bereizkerien aurka, lan berdinak soldata berdina merezi duelako oinarripean beti.

(275) Prekarietatearen aurka eta kalitatezko enpleguaren aldeko borroka honetan, LABek patronalari enpresetan emakume langileen kontratazioan bereizketa positiboko neurriak sartuko dituen aukera berdintasunen politika eskatu behar dio.

(276) Enpresaburuak, urte batetik gorako indarraldiekin, lanaldiak 35 ordura murrizteko baina, aldi berean, malgutasun maila areagotzeko negoziazioak bultzatzen ari dira, enplegua sortzeko inolako ondorerik gabe. LABek ezin du planteamendu horietan sartu, batetik akordio horien indarraldiarengatik eta, bestetik, klase jarreratik begiratuz lanaldia murriztearen kontzeptu maltzur horregatik. Gainera, estrategia horrek enpresetan "bake soziala" finkatzen du eta ez dakar inolako kontraprestaziorik patronalaren aldetik.

(277) Lanaldia murrizteak, lan, pertsona eta familia (bizikide) bizitza uztartzeari mesede egiteaz gain, lana banatu edo enplegua sortzea ditu oinarrizko helburuak. Lanaldiaren murrizketa ezin daiteke malgutasunaren truke negoziatu. Halako planteamendu batek lanal-

diaren murrizketaren balio positiboa neutralizatzen du eta enpresaburuari interesatzen zaio produktibitate handiagoa dakarrelako.

(278) Aparteko orduak ezabatzea edo, bestela, atsedenaz konpentsatzea oinarrizkoa da lantokietan enplegua sortzeko politikari koherentzia emateko. LABek ezin du bere baitan ekintza sindikalean elkartasunik gabeko eta pedagogiaren aurkako jarrerak izaterik onartu.

(279) Lan segurtasun eta osasuna osorik sartu behar dira negoziazio kolektiboan, eta horretarako istripuen bilakaera, segurtasuneko inbertsioak, berariazko batzordeen funtzionamendua eta abar baloratu eta neurri egokiak planteatu behar dira. Lan osasunean ere lanetik sortzen diren errentengatik lehiatu behar dugu. Beraz, mozkinak langileen osasun eta segurtasunera ere bidera daitezen eskatu behar dugu baina, hori bai, soldata igoerak absentismoa murriztera baldintzatu gabe.

(280) Euskal Herriak euskara enpresen funtzionamenduan eta barruko lan harremanetan sartuta eta normalizatuta egon dadin behar du. Ekimen edota akordioen ebaluazioa zein sektore edo enpresako berariazko planak egitea negoziazio kolektiboan zeharo txertatu behar da. Horretarako, sail sindikaletan gai hori nolabait beren beregi jorra dezaten militanteak egon behar dira.

5.4.1.4. Hitzarmenen jarraipena eta sinatzea erabakitzea

(281) Sail sindikalak edo sindikalek protagonismo nagusia daukate negoziazio kolektiboaren prozesu osoan. Alabaina, lurralde eta sektore egitura negoziazio subjektu horren beste zati bat izan behar dira, bertan parte hartu, jarraipena egin eta sail sindikalei laguntza eta aholkua eman behar dietelako.

(282) Prozesu hau burutzean dagoen erreferentzia giltzarria deneko hitzarmena sinatu ala ez sinatu erabakitzea da, baina beti LABek ponentzia honetan finkatutako jarrera eta edukietan oinarrituz. Izan ere, hitzarmen bat sinatzea ez da betebehar bat, ez eta "erantzukizun edo ardura egintza" bat ere. Gehiengoen atoian doazen hitzarmenak sinatzetik ihes egin behar dugu, prozesua eta edukiak egokiak ez direla uste badugu. LABen jarrera ondo finkatuta egon behar da, eta batzuetan elkartasunik ezeko, baita sindikatuen aurkakoak ere diren jarreren atarikoak besterik ez diren parametroen eraginetik askea.

(283) Hitzarmen sektorial bat sinatzean sektore eta konfederazio mailako erantzukizunekin kontrastatu eta adostea ezinbestekoa izango da. Enpresa itun edo hitzarmen bat sinatzean ukitutako sektore eta lurralde egiturekin kontrastatu eta adostu beharko da.

(284) Sektore edo enpresa baten hitzarmenaren inguruko erabakian, ukitutako langileen batzarraren erabakia bultzatuko dugu, eta langile horien protagonismoa lortzera jotzen duten ekimenak baloratuko ditugu (erreferenduma edo halakoren bat). Hori bai, garbi dago LABentzat ez direla lotesleak izango, bere jardunerako, langileen aurkako erabakiak edo neurriak, hala nola, kaleratzeak edo bereizkeriazko lan baldintzak ezartzea erabaki nahi duten batzarrak.

5.4.2. Prekarietatearen aurkako borroka.

(285) Negoziazio kolektiboarekin ez dira amaitzen ez prekarietate modu anitzen aurkako borroka, ez eta azpikontratazioak murgiltzen gaituen lan errealitatearen aurkako borroka ere. Aitzitik, negoziazio kolektiboa prekarietatea neutralizatzeko tresna izan behar da.

(286) Anpikontratatzearen aurkako borroka prekarietatearen aurkako borrokaren barruan sartzen da. Enpresa ertain - handietan, produkzioari begirako logika sortzen da, berez prekarietatea eta lan harremanak hondatzea dakarrena. Plantillak murrizten dira (sarritan espedienteen bidez), ez ekonomia edo produkzio arrazoien arabera, baizik eta kosteak gutxitu eta prekarietatea gehitzeari mesede egingo dion azpikontratatze prozesuaren aurreko urrats modura.

(287) Kontratazioaren etengabeko kontrolak eta kontratuen oinarrizko kopiak eskatzeak langile berriekiko harreman zuzen etengabea ekarri behar du, beren berariazko lan egoeraren berri izatea eta, ondorioz, horri buruzko ekintza sindikala. Kontratu iraunkorra daukaten pertsonek babesik gabeko edo eskubide gutxiagoko langileen lan eta kontratu baldintzen aldeko borrokan erantzukizun handiagoa hartu behar dute. Maxima hori ondo barneratu behar dute sail sindikalek.

(288) Eskualde egiturak prekarietateari bere esparruan erantzuteko modua planifikatu behar du. Horretarako eskualde bakoitzean prekarietatearen "rankinga" ezarri behar da eta, ondorioz, salaketa eta interbentzio iraunkor eta pedagogikoko dinamika burutu.

(289) Prekarietatearen aurkako borrokan, enpresen barruko aktibazioa kanpoko presioarekin konbinatu behar da. Jendartean salaketa, erakunde interpelazio eta talde sozialekin koordinatzeko metodoek interbentzio erreferente eta, bereziki, hezitzailea finkatu behar dute. Ekintza sindikal tinko eta iraunkorrarekin enpresaburuari prekarietatearen "prezioa" zein den erakutsi behar zaio. Hau da, ezin da gazteria esplotatu enpresen errentagarritasuna areagotzeko, sindikatuen aldetik erantzun egokirik jaso barik.

5.4.3. Genero ikuspegia ekintza sindikalean.

(290) Emakumeek lan merkatuan partaidetza handiagoa izan dezaten eta lan eta familia ardurak (pertsona mailakoak ahaztu egiten zaizkie) uztartzeko neurriak jarri beharraren gainean ugaltzen ari diren jardunaldi, argitalpen, hitzaldi eta abarrak ez dira emakumeei eta lan harremanen ereduari berari ukitzen dien egiturazko arazoari aurre egiteko nahikoak, argi eta garbi.

(291) Borondate eta asmoen adierazpenak, desberdintasunak konpentsatzera eta dauden bereizkeriak ezabatzera zuzendutako ekintza positiboko neurrien bidez ekinez, eskubide eta aukera berdintasuneko izatezko politika eragingarri bihurtuz soilik gainditu ahalko da genero bereizkeria.

(292) Nabarmendu behar dugu genero bereizkeriaren biktimak emakumeak direla, baina eredu kapitalista neoliberaleko jendarte osoari bete-betean ukitzen dion arazoa eta bere izaera patriarkalaren isla dela. Ezartzen duen lanaren banaketa sexuala eta aitortu gabeko lanaren eta zenbatu gabeko errentaren esparrua mantenduz, kapitalak,

ongizate sozialean ez inbertitzeaz gain, besteak beste, lan esparruaren esklusibotasunari eutsi ahal dio, bizitzako (pertsona eta familia mailako) erantzukizunak ezinbestean uztartzearen kaltetan, eta langileriaren hausturan sakondu ahal du, bereizkeriaren eta prekarizazioaren bidez.

(293) Sindikatuan gai honetan aurrera egin dugula onartu arren, gure analisi eta postulatu ideologikoetan eta gure ekintza sindikal orokor, sektorial eta berariazkoan zeharka sartzeko dauzkagun zailtasunez ere jabetzen gara. Aukera Berdintasunen Plan Estrategikoa, 2000tik hona jorratzen ari garena, gure konpromisoari koherentzia eman eta aurrera egiteko daukagun bitarteko giltzarria da.

5.4.4. Lan osasuna eta gure ekintza sindikala

(294) Langileek pairatzen dituzten osasun kalteak, bai gaixotasunak bai istripuak, ez dira kasualitate hutsak eta ez dira halabeharrez gertatzen. Langileen heriotzen errudunik egon badago: prekarietatea eta enpresaburuen inbertsio exkaxa. patronalaren esplotazio sistemak eta diru gosea dira lantokietan osasuna eta bizitza galtzera eramaten gaituztenak.

(295) Administrazioek lan istripuetan duten erantzukizuna saihestezina da. Ez daukate kontrolatu eta ikuskatzeko borondaterik, eta zehapenak ezarri eta enpresaburuei aurre egiteko orduan, estaldura sozialtzat jo daitekeen jarrera izaten dute.

(296) Sindikatuek eta jendarteak gero eta gehiago hartu dute kargu honen inguruan; hala er lan istripuei, eta estatistika ofizialetan islatu ere egiten ez diren bestelako osasun kalteei erantzun are gogorragoa eman behar zaie. LABek, beraz, interpelazio, salaketa eta mobilizazioetan urratsak egiten jarraitu behar du. Administrazioei plagintza zehatzak eta benetako kontrola exijitu behar dizkiegu. Enpresek arauak eta prebentzio neurriak bete behar dituzte, benetan, eta ez bakarrik formalki.

(297) Lan istripuei eta lanarekin zerikusia daukaten gaixotasunei eragingarritasunez aurre egiteko, gure ekintza sindikalak, erne egoteaz gain, erasorako prest egon behar du. Horretarako prebentzio ordezkariak ondo prestatuta egotea eta gai horretan modu egokian esku hartzea ezinbestekoa da.

(298) Bestalde, kontingentzia arrunten ondoriozko ezgaitasun iragankorraren kudeaketa mutuen esku lagatzeko aukera eskaintzen duten lege aldaketek, eta mutuen praktika oker etengabeek (kontingentzia profesionalen eta prebentzio zerbitzuen kudeaketa) gure ekintza sindikalari gogor erantzuteko eskatzen diote. Gure erantzuna mutuak sistema publikoaren parte izatera igaro daitezen errebindikaziora bideratu behar da.

5.4.5. Ingurumena ekintza sindikalean.

(299) Osasunaren defentsa lantokian produkzio prozesuen, produktu kutsatzaileen erabilpenaren eta beroiek ekosistemarengan duten eraginaren kontrolera hedatu behar da. Natura zabortegi erraldoi modura erabiltzea, osasun eskubidearen aurkako erasoa izateaz gain, kapitalak natura ingurunea etengabe hondatuz mozkina ateratzen dien produkzio prozesuen gastua kanpora agertzeko duen modua ere bada.

(300) Gure ekintza sindikalak, bai konfederazio mailan bai lantokietan, konpromisoa hartuta dauka gure ingurumena hobetzeko estrategiekin, zentzurik zabalean, hau da, enpresek ingurumenari eragiten dizkioten kalteen aurrean, hala nola, gure atmosfera, kostalde eta ibaietara produktu kutsatzaileak isuri, energia eta lehengaien gehiegizko kontsumoaren aurrean eman beharreko erantzunak definitzeko estrategiekin.

(301) Lurralde antolamenduaren, energia politiken, hondakinen tratamenduaren eta produkzio garbirako trantsizio prozesuen gaineko jarduerak zehaztea gure ekintza sindikaletik aurre egin behar diogun erronka da. Lantokietan eta zerbitzuetan produkzio prozesuak hobetzeko berariazko inbertsio politikak behar dira eta, horrekin batera, ikuskatu eta zehatzeko jarduerak ere bai.

5.4.6. Ezgaituak lan eremuan

(302) Milaka euskal langilek lanpostu bat lortzeko bidean beren ezgaitasunen baten oztopoa izaten dute, eta gai horretako indarreko legedian aurreikusten diren gutxienekoak ere ez dira betetzen. LABetik ezgaitutzat jotako pertsonek lan duina izateko duten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten, eta lantokietan produkzioko bitartekoak eskueran izan eta erabiltzea errazteko behar diren neurri teknikoak har daitezen errebindikatzen dugu.

(303) Ezgaituek ohiko lanpostuetara sartzeko behar diren aukerak izan behar dituzte eta horrek izan beharko luke Enpleguko Zentro Berezien lehentasuna. Langileek zentro horietan egoteak profesionalki birzikla daitezen helburua bete behar du, eta ezin daitezke lan merkatu arruntera iristeko dituzten zailtasunengatik merkea den lan indarraren esplotazio zentro bilakatu.

5.4.7.- Etorkinak eta ekintza sindikala.

(304) Globalizazio neoliberalak herrien garapen ekonomiko eta sozialari hainbat eragin eta ondorio maltzur ekartzen dizkio. hauen artean, milaka emakume eta gizon bizi baldintza hobeen bila migratzera behartzen dituela aipatuko digu oraingoan. Finantza eta multinazionalen kopitalak euren jatorrizko herrialdeak ekonomikoki ustiatu, eta Afrika, Amerika eta Europako Ekialdetik datorren immigrazioa ikaragarri gehitzea ekarri du.

(305) Inmigrazioak Euskal Herrian duen bilakaera LABek eta ezker abertzale osoak sakon inoiz baloratu ez duen aldagaia da. Jabetu behar dugu ez dela abaguneko fenomenoa, ezta akzesorioa ere, eta bizi garen arerio ingurunearen ondorioz demografikoki txikia den, politikoki desegituratuta eta kulturalki hauskorra den Euskal Herrian lekua hartuz doan migrazio mugimenduaren aurrean gaudela.

(306) Egun jada milaka dira hainbat alorretan esplotazio baldintzetan lanean ari diren etorkinak: arrantzuan, eraikuntzan, nekazaritzan, ostalaritzan, dendetan, etxeko zerbitzuan... LABk pertsona horien lantokietako eguneroko interesak defendatzeko erantzukizuna bere gain hartu ez eze, Euskal Herrian bizi dugun nazio eta klase mailetako pultsu politikoaren partaide ere izan daitezen bitarteko ere izan behar du.

(307) Hori irismen handiko erronka da. Duela 30 urte baino gehiago ezker abertzaleak industralizazioarekin eta frankismoarekin garatutako inmigrazioak eragin zituen konpartimentu estanko politiko eta sozialekin hautsi zuen teorizazioari ekin bazion, gaur errealitate berri baten aurrean gaude. Eta, jarrera formalen gainetik, egoera hau sakon aztertu eta lan egitasmo eta egitarau egokiak abiarazi behar ditugu.

(308) LABen gai honen inguruko lan ildoak hiru ardatzetan zentratu behar dira. Batetik, pertsona horiek beren jaioterriak bizi baldintza hobeen bila uztera behartzen dituzten politika ekonomiko eta sozialak salatu behar ditugu, baita herriei garatzen laguntzeko tokiko eta nazioarteko ekimenetan parte hartu ere. Bestetik, euskal administrazioei, gure produkzio eta jendarte ehunduraren errealitatearen arabera eta nazioarteko elkartasun eta lankidetza ikuspegitik, bertoko harrera baldintzak artikulatzeko eskumenak eskatu eta gauzatzeko eskatu behar diegu. Eta, azkenik, etorkinek sindikatuan parte har dezaten ekintza sindikala bultzatzea, beren lege egoera dena delarik.

5.4.8. Ekintza sindikala eta euskal esparru sozio-ekonomikoa.

(309) Ekintza sindikalak enpresan edo sektorean lan baldintzen inguruko konfrontazioaren eremu estua gainditu behar du, eta sektoreetarako, zergen gaineko, aurrekontuei buruzko eta ekonomiako politikak jorratu behar ditu, aldaketa sozialeko gure eredua aurrera eraman ahal izan dezagun.

(310) Esparru sektorialean proposatuko diren politika orokorren gogoeta eguneratua egin behar da, eta kontra-botere soziopolitikoaren ikuspegi ondo landua aktibatu. Bai industria sektoreetan bai sektore publikoetan, LABek euskal esparru sozio-ekonomiko bati forma eta proiekzioa eman diezaioten politika sektorialeko proposamenak landu behar ditu.

(311) Koadro sindikalek eztabaida politiko-ideologikoaren mailan eta interbentzio mailan gai sozio-ekonomiko orokorrak jorratu behar dituzte, batzuetan "mikro" (enpresa) oker esaten zaionaren eta erakundeak bultza ditzakeen jarduera politiko hutsen (presoak, gatazka politikoa, eta halako gaiekin lotuta) artean dabilen jarduera gainditzeko.

(312) Eremu soziolaboralean hizkuntza politika baten alde borrokatzea, garraio publikoko edo merkantzietako azpiegituren politika desberdinetan inplikatzea, finantzaketa egituren politiketan esku hartu eta kontrolatzea, ingurumen eta osasun publikoko gaietan sartzea... esparru horietan egiten du, hain zuzen, ekintza sindikalak euskal esparru sozio-ekonomikoa zehazteko bere ekarpena.

(313) Garapen jasangarriko eredua eratzea funtsezkoa da, gure ekintza sindikalerako, euskal esparru sozio-ekonomikoa eraikitzeko. Horren haritik, garapen jasangarri, eredu baten aitzindari izateko gai den euskal sektore publikoa eratu behar dela diogu, endogenoa eta Europako eta nazioarteko testuinguruan harremanetarako erabateko ahalmenak dituena. Gure produkzio ehunduraren garapena eta aberastasuna hobeto banatzea lehenetsiko dituen zerga eta aurrekontu politika definitu behar da.

(314) Euskal esparru sozio-ekonomikoaren eraikuntzarako sindikatuen partaidetza behar da, Euskal herriaren antolamendu ekonomiko eta soziala gauzatzeko jarduera esparrua zehaztea ahalbidetuko diguten bitartekoak martxan jarri behar dira, geure politika sektorialak garatu behar ditugu, lurraldearen, azpiegituren eta energiaren antolamendurako plan koordinatua egin eta, aldi berean, geure finantzaketa sistema sortu behar dugu, gure garapen ereduaren oinarrizko atal gisa.

5.4.9.- Ekintza sindikala jendarte eredu alternatiborako

(315) Ekintza sindikalak langileriari eta herri xeheari baldintza sozio-ekonomikoak baldintzatu eta jendarte eredu alternatibo batean aurrera egitea ahalbidetuko dieten edukiez hornitu behar du.

(316) LABen izaera soziopolitikoa batez ere kontra-botere ekonomiko eta sozial modura eratzeko eta, aldi berean, jendarte eredu alternatiborako proposamenak aurkezteko duen gaitasunak ematen dio. Gure proiektuaren berezko ezaugarria da. Horren ildotik, LABek espazioa eta erreferentzia berreskuratu behar ditu euskal jendartean, Euskal Herriko kaleetan, aldaketa sozialerako indar gisa.

(317) LABen konpromiso hau demokrazia politiko eta sozialaren aldeko, kapitalismo neoliberalaren alternatiba izan dadin jendarte ereduaren aldeko borrokarekin uztartuta dago. Gure borroka Euskal Herrian globalizazio neoliberalaren aurkako borrokaren barruan sartzen da, non parte aktibo sentitzen garen.

(318) Ildo horretan, euskal jendarte osoa jotzen duen kontsumismo ikaragarria zalantzan jartzea erabakigarria da eredu sozial alternatibo batean aurrera egiteko.

(319) Sindikatuak hezkuntza eta osasun sistema unibertsal eta doakoaren aldeko borrokan, herritarren zerbitzurako politika sozial eta garraioen politiken aldeko borrokan... duen konpromisoak proiekzio soziopolitikoa ematen diote, aldaketa sozialerako benetako eragile modura jarriz.

(320) Gizon eta emakumeek, aukera eta eskubide berdinekin, lan munduan eta, oro har, jendartean pareko partaidetza izan dezaten oraindik orain, urrunago joan barik, geure erakundean bertan dauden desberdintasunei aditzen badiegu, gainditzeko daukagun gai zail modura ikusten dugun baldintza demokratikoa da.

(321) Aberastasuna banatzeko neurriak, hala nola, oinarrizko errenta unibertsala ezartzea, edo kapitalaren espekulazio mugimenduak zergapetuko dituzten mekanismoak (Tobin tasa), indarrez sartu behar dira LABek botere publikoei dagokienez eraman behar duen ekintza sindikalaren dinamikan.

(322) Zerga politika aberastasuna banatzeko funtsezko bitartekoa da, eta ekintza sindikal interpelaziogileak botere publikoarengana bideratzeko errebindikazioa. Zerga arauak eztabaida sozialaz oharkabean igarotzen dira, edo herritarrentzat ulergaitzak diren dimentsioetan islatzen dira. Zergen gaia langileriarengana modu pedagogikoz helarazteko ahalegina egin behar dugu, baita lan errentetan oinarritzen den aurrekontu politika baten izaera atzerakoia nabarmen utzi ere.

(323) LABek euskal administrazioek egiten duten zerga politika sistematikoki salatu behar du, eta jarduera horien errotik aldatzeko mobilizazio sindikal eta sozialen dinamika plante-

atu behar du. Zergak eta tasak, zuzen zein zeharkakoak, antolatzeko erabateko gaitasun politikoa eskatu behar dugu; eskari sozialei erantzun diezaieten aurrekontu publikoetako politikak izatea, aberastasuna ondo banatzea; errentei, datozela datozen tokitik, zergak PFGZren eskalan ordainaraziko dizkien zerga sarrerako politika bat; dirutza handien eta kapitalaren espekulaziozko mugimenduen gainean zergapetzea, eta zergapetze zuzena zeharkakoari lehenestea.

(324) Etxebizitza sindikalismoaren interbentzioaren barruan garatu behar duen erreferentzia da. Langile gazteek etxebizitza duina eskuratzeko dituzten zailtasunak oihartzun eta garrantzi handiko arazo sozial bihurtu dira, espekulazio politika eta interes inmobiliarioak izugarriak direlako.

(325) Etxebizitzen politika publikoek arazoa ez konpondu ez eze, oro har, lurraren espekulazioari eta etxebizitza finantzaketa gai, diru beltza azaleratzeko xede bihurtuko duen eskaintza pribatuari mesede ere egin diete, eta hutsik dauden etxebizitzen kopurua areagotu dute. Batez ere gazteei ukitzen dien egoera horren aurrean, LABen alokairu merkeen sistemak bultzatzea, erabilitako eta babestutako etxebizitzak zahar-berritu, erosi eta alokatzea babestea, hutsik dauden etxebizitzak zergapetzea eta alokatzea daitezen sustatzea, eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lur publikoa gaitzeko plana eskatzen dugu.

5.5. Barruko lan mekanismoak. Borroka sindikaleko metodoak

5.5.1.- Barruko lan mekanismoak.

(326) LABen ekintza sindikalaren oinarri sail sindikalek berek izan behar dute. Antolakuntza eredua izango da sail horien benetako dinamizazioa bermatu edo bultzatuko duena.

(327) Enpresa Batzordeetako ordezkariek komunikazio, harreman eta gogoeta mekanismoak finkatu behar dituzte afiliatuekin ekintza sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren inguruan. Dena ordezkarien eskuetan lagatzea saihestu behar da, burokratizazio arriskutsua ekar lezakeelako, eta horretarako afiliatuen komunikazioa eta inplikazioa beharrezkoak dira.

(328) Sindikatuko koadro edo arduradunen lan metodoak giltzarriak dira sail sindikalen dinamizaziorako. Horretarako, koadroek, sektore eta lurraldeetako egiturek beren lana afiliatuekin etengabeko harremanean antolatu behar dute, beren lanaldia modu egokian moldatu eta sindikatura heltzen dien arazo zehatzen erritmora ibiltzea saihestu.

(329) Sindikatuko lege aholkularitzak lanaren antolamenduaren eskema horixe bera izan behar du, kontsulta egunak jarriz eta dedikazio eragingarria ahalbidetuz.

(330) Eskualdeko egitura bere esparruko gogoeta, ekarpen eta plangintzarako erakundea da, eta alderdi politiko eta sindikal guztien gainean nolabaiteko kontrola izan behar du. Bere kideen ekarpen militanteak, beren ardura sektorial edo berariazkoaz aparte, erabatekoa izan behar du. Denok izan behar dute gai sindikal eta politikoen plangintzaren, sindikatuaren hedapenaren eta abarren parte aktibo.

(331) Erakundeko koadroen prestakuntza ideologiko eta sindikala interbentzio sindikalaren eta soziopolitikoaren ildoa garatzeko bermea da eta, horretarako, erakunde osoan etengabeko prestakuntza plana antolatu behar da.

(332) Teknologia berriak modu egokian erabiltzeak denbora errealeko komunikazio fluxua izatea ahalbidetu behar digu, izaera berrikoa, koadroekin eta sindikatuko afiliatuekin. Iraultzen sendotu ondoren, sindikatuak komunikazio bide berriak garatu behar ditu: web gunea, ordezkarientzako hileroko berripapera, eta idazkaritza juridikoak egin beharreko txostenak, informazio orriak komunikazioaren ardura duen alorretik.

5.5.2. Borroka sindikaleko metodoak.

(333) Mugimendu sindikalak zenbait konplexu gainditu behar ditu sindikatuen esku hartzeko borroka metodoen gaineko eztabaidaren inguruan. Patronalak - botere ekonomikoak, komunikabideen laguntzarekin, gehienak beren zuzendaritzapean daudelarik, defentsibako pentsamoldea sartu digute, bortxazko bitartekoez edo borroka sindikalaz mintzo direnean.

(334) Patronalak lan harremanetan bortxazko moduak etengabe erabiltzen ditu. Beldurtze, agintekeria eta xantaia egitura horren gainean, ez dago hitz egiterik, ezin zaio enpresaburuari interpelatu. Alabaina, langileek bortxazko mekanismoren bat erabiltzen dutenean, enpresaburuen eta beren komunikabideen erreakzio neurrigabe eta hipokrita etortzen da. Beraz, borroka sindikala ezin da eskema horien baldintzapean egon, eta abian dagoen pultsu sindikalaren ildoko interpelazio eta salaketa formatuak baliatu behar ditu.

(335) Greba enpresetan borrokarako dagoen bitartekorik garrantzitsuena da. Enpresa edo sektore batean produkzioa geldiaraztea borroka sindikalean dagoenik eta erantzun eta desobedientzia egintzarik handiena da. Abiapuntu honetatik, grebak egindako errebindikazioak irabazteko, indar korrelazio hobea sortzeko eta gatazka gizartean garatzeko, delako enpresaburu edo administrazioaren jarrera salatzeko balio behar du. Horrela eginez gero, greba ez da berez helburua, eta ez da, jada, porrotera eraman gaitzakeen erresistentzia egintza hutsa.

(336) Grebak mobilizazio ekimen osagarriak behar ditu (itxialdiak, errepide mozketak, errepidea geldiarazten duten auto karabanak, gose grebak, pertsonen kateak, elkartasunezko harremanak kolektibo edo erakundeekin, manifestazioak...). Halako ekintzak ezinbestekoak dira LABek egin behar duen konfrontazio eta borroka estrategian. Dinamika osagarri horiek berreskuratu eta horietan sakontzeak, era berean, jendarteko edo langileen arteko beste kolektibo batzuen elkartasuna eta babesa geureganatzeko balio behar du.

(337) Borroka kutxa ofentsiba sindikalismo baten, patronalarekin pultsu garrantzitsuak egiteko gai den sindikalismoaren garapenari mesede egin liezaiokeen bitartekoa da. Hau da, "zerbitzu" modura hartu barik, greban eta mobilizazioetan erreferente nagusia izan behar duen konfrontazio gaitasunean osagarri modura baizik. Nazio mailako Biltzar baten barruan definitutako konpromisoa 2004ko abendua baino lehen aurkeztu beharko litzatekeen eztabaida eta gogoetarako proposamen baten bidez gauzatu behar da.

5.6. Ekintza sindikalerako batasuna Euskal Herrian

(338) Sindikalismo abertzaleak indarrak metatu eta piztu behar ditu, ekintzan batasuna behar du Euskal Herrian klase konfrontazioari baldintza hobetan aurre egin ahal izateko.

(339) Enpresa edo sektoreetan izandako arazo eta konfrontazioetatik sortutako ekintza batasunak hor egonik ere, LABek uste du Euskal Herrian konfederazioko ekintza batasuna sindikalismoak aldaketa politiko eta sozialerako prozesura egin dezakeen ekarpenera bideratu behar dela; hau da, ekintza batasunaren helburua indarrak metatu eta aktibatzea izango da, Euskal Herria burujabearen aldeko estrategiaren markoan jendarte eredu alternatiboaren alde egiteko.

(340) LABentzat ekintza batasuna ez da fronte sindikalerako bitartekoa, Euskal Herriko langile guztientzat txarra den eredu politiko eta sozialaren aurka ahalik eta baldintzarik onenetan borrokatu ahal izateko bitartekoa baizik. Berariazko borroka horretatik barneratuko ditugu globalizazio neoliberalaren aurkako borrokan nazioarteko langileriaren mugimenduaren batasunean ditugun konpromisoak.

(341) Esparru soziolaboraletik –lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrua- burujabetzako prozesu baterako egindako ekarpenak, esparru horren dimentsio sozialarekin batera, ezaugarritu behar dute ondo finkatu eta bideratutako ekintza batasunaren edukiak. Horrek ekintza batasuna, helburu horietan gurekin bat etorriz, oso berariazko sektoreetan ari diren sindikatu erakundeengana zabaltzera eramaten gaitu (EHNE, ELB, HIRU, STEE).

(342) Ekintza sindikaleko edota negoziazio kolektiboko ekintza batasunak enpresaburuekin eta administrazioarekin mintzatzeko eta botere eremuak irabazteko aukera eskainiko digun klase konfrontazioaren zerbitzura egon behar du.

(343) Azkeneko hiletan ELArekin konpromiso eta akordioen bigarren faseari ekin diogu, eta ekintza sindikalak gai sindikaletan eta gai soziopolitikoetan duen betekizunari proiekzio eragingarria emateko balio izan du.

(344) Fase berri hau sendotzeko, bi sindikatuok, diagnostiko komun batetik, jarrera eta jarduerak partekatu behar ditugu aldaketa politiko eta sozialerako estrategia batean bat egiteko prozesuan.

1. eranskina

EUSKAL HERRIKO EKONOMIA ETA LAN EGITURA

Enplegudun biztanleria, sektoreka eta lurraldeka 2002. urtea

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA GARAIA	IPARRALDE*
ARRANTZA/NEKAZA.	%3,3	%1,3	%1,8	%6,6	%6,3
INDUSTRIA	%33,6	%24,4	%32,2	%28,3	%14,8
ERAIKUNTZA	%6,4	%10,6	%8,4	%9,2	%6,6
ZERBITZUAK	%56,7	%63,8	%57,7	%55,9	%72,2

Iturria: EUSTAT, INE,INSEE., geuk sortutakoa

Lantokiak eta enplegua, langile kopuruaren arabera. Hego Euskal Herria.

	EAE - 2002		NAFARROA GARAIA - 1997	
	Lantokiak	Enplegua	Lantokiak	Enplegua
Guztira	%100	%100	%100	%100
1-5	%88,4	%29,8	%59,5	%6,4
6-50	%10,4	%31,6	%34,0	%29,3
51-100	%0,7	%11,1	%3,0	%11,2
101-500	%0,5	%18,5	%3,2	%32,2
>500	%0,0	%9,0	%0,3	%20,9

Iturria: INSEE

Enpresen distribuzioa langile kopuruaren arabera. Ipar Euskal Herria - 2001

	Enpresa kopurua	%
Guztira	25.634	%100
0	15.570	%60,7
1-9	8.807	%34,4
10-19	661	%2,6
20-49	417	%1,6
50-499	173	%0,7
>500	6	%0,0

Iturria: Sirene - INSEE

Prekarietate portzentajea. Ipar Euskal Herria. 1999. urtea

	LAPURDI	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	IPARRALDE*
Soldatapekoak	70.714	6.257	3.606	80.577
Enplegu prekarioa	11.027	1.128	646	12.801
Prekarietate tasa	**15,6%**	**18,0%**	**17,9%**	**15,9%**

Iturria: INSEE

INEMeko kontratazio datuak (portzentaje bertikalak) Hego Euskal Herria - 2003

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GAZTEAK
Kontratu indefinituak	%7,9	%8,6	%7,1	%5,2
Aldi baterako kontratuak	%92,1	%91,4	%92,9	%94,8
Guztira	%100	%100	%100	%100

INEMeko kontratazio datuak (portzentaje horizontalak). Hego Euskal Herria - 2003

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GAZTEAK
Kontratu indefinituak	%100	%55,6	%44,4	%21,1
Aldi baterako kontratuak	%100	%50,4	%49,6	%32,7
Guztira	%100	%50,8	%49,2	%31,7

1. eranskina

EUSKAL HERRIKO EKONOMIA ETA LAN EGITURA

Enplegudun biztanleria, sektoreka eta lurraldeka 2002. urtea

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA GARAIA	IPARRALDE*
ARRANTZA/NEKAZA.	%3,3	%1,3	%1,8	%6,6	%6,3
INDUSTRIA	%33,6	%24,4	%32,2	%28,3	%14,8
ERAIKUNTZA	%6,4	%10,6	%8,4	%9,2	%6,6
ZERBITZUAK	%56,7	%63,8	%57,7	%55,9	%72,2

Iturria: EUSTAT, INE,INSEE., geuk sortutakoa

Lantokiak eta enplegua, langile kopuruaren arabera. Hego Euskal Herria.

	EAE - 2002		NAFARROA GARAIA - 1997	
	Lantokiak	Enplegua	Lantokiak	Enplegua
Guztira	%100	%100	%100	%100
1-5	%88,4	%29,8	%59,5	%6,4
6-50	%10,4	%31,6	%34,0	%29,3
51-100	%0,7	%11,1	%3,0	%11,2
101-500	%0,5	%18,5	%3,2	%32,2
>500	%0,0	%9,0	%0,3	%20,9

Iturria: INSEE

Enpresen distribuzioa langile kopuruaren arabera. Ipar Euskal Herria - 2001

	Enpresa kopurua	%
Guztira	25.634	%100
0	15.570	%60,7
1-9	8.807	%34,4
10-19	661	%2,6
20-49	417	%1,6
50-499	173	%0,7
>500	6	%0,0

Iturria: Sirene - INSEE

Prekarietate portzentajea. Ipar Euskal Herria. 1999. urtea

	LAPURDI	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	IPARRALDE*
Soldatapekoak	70.714	6.257	3.606	80.577
Enplegu prekarioa	11.027	1.128	646	12.801
Prekarietate tasa	**15,6%**	**18,0%**	**17,9%**	**15,9%**

Iturria: INSEE

INEMeko kontratazio datuak (portzentaje bertikalak) Hego Euskal Herria - 2003

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GAZTEAK
Kontratu indefinituak	%7,9	%8,6	%7,1	%5,2
Aldi baterako kontratuak	%92,1	%91,4	%92,9	%94,8
Guztira	%100	%100	%100	%100

INEMeko kontratazio datuak (portzentaje horizontalak). Hego Euskal Herria - 2003

KONTRATU MOTA	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GAZTEAK
Kontratu indefinituak	%100	%55,6	%44,4	%21,1
Aldi baterako kontratuak	%100	%50,4	%49,6	%32,7
Guztira	%100	%50,8	%49,2	%31,7

2. eranskina

Ordezkaritza sindikalaren araberako enpresa koadroa.
(Hego Euskal Herria)

	Ordezkaritzarik ez	Ordezkaritzarekin	GUZTIRA
Enpresa kopurua	13.713	9.716	23.429
Huteskunde %	%58,53	%41,47	%100

Ponencia
político sindical

Índice

1. Situación internacional 7
1.1. Hegemonía del capital a escala mundial 7
1.2. La Europa del capital 9
1.3. LAB en este contexto internacional 10
1.4. Estados francés y español 10

2. LAB y el proceso político en Euskal Herria 15
2.1. Claves de coyuntura política 15
2.2. Por una estrategia nacional y soberanista.
Por el cambio político y social desde una solución democrática al conflicto 18
2.3. El proceso soberanista en el ámbito sociolaboral 22
2.4. El espacio socioeconómico vasco 25

3. Clase trabajadora y sindicalismo en Euskal Herria 31
3.1. Situación de la clase trabajadora vasca 31
3.2. Evolución del sindicalismo en Euskal Herria 34

4. Una visión crítica de nuestra acción sindical 37
4.1. Un pequeño recorrido 37
4.2. Características del desgaste en la acción sindical 37
4.3. Causas 38
4.4. Conclusiones 39

5. Impulsando nuestro modelo sindical 41
5.1. Dos modelos, una única referencia para LAB 41
5.2. La recomposición de la clase trabajadora, base de nuestro modelo de acción sindical 41
5.3. Sindicalismo de confrontación -de disputa de poder al capital-,
agente para el cambio social 42
5.4. Una acción sindical de contrapoder real en el proceso de cambio político y social 45
5.5. Mecanismos de trabajo interno. Métodos de lucha sindical 54
5.6. La unidad de acción sindical en Euskal Herria 56

Anexo 1 57

Anexo 2 59

1. Situación internacional

1.1. Hegemonía del capital a escala mundial

(1) El capital transnacional continúa imponiendo sus políticas neoliberales a nivel mundial con la cobertura político-militar de Estados Unidos y el apoyo de la Unión Europea. El orden internacional neoliberal impide el desarrollo social y económico de los pueblos del mundo, priva a los países de la capacidad para decidir su propio futuro y genera instituciones de decisión cada vez más alejadas de la voluntad y los intereses de las y los habitantes del planeta. La globalización neoliberal se constituye en el fascismo político-económico del siglo XXI.

(2) La maquinaria económica neoliberal, en su continua estrategia de acumulación y concentración capitalista, necesita seguir dominando y saqueando los pueblos y sus materias primas. Ejemplos evidentes de esta estrategia lo constituyen el acoso permanente a los países árabes y la ocupación de Iraq y Afganistán, dirigido a adueñarse de las reservas petrolíferas y el apoyo al régimen sionista como potencia agresora en su esfera de influencia.

(3) La agresión militar, la usurpación de los recursos energéticos y el control de los recursos naturales del planeta para trasformarlos en mercancía son las señas de identidad del nuevo orden internacional impuesto por el capital multinacional de la mano de los EEUU y sus socios de la UE.

(4) Los organismos internacionales que tras la II Guerra Mundial pretendían regular las relaciones internacionales, y especialmente el Fondo Monetario Internacional y el Banco Mundial son meros instrumentos al servicios de la estrategia neoliberal. La ONU, mediatizada por el control económico militar de los EEUU no es capaz de superar la actual unipolaridad y ha quedado desactivada como instrumento para el desarrollo de los pueblos del planeta y la solución democrática a los conflictos.

